



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV-EHU

LEIOA

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

POLITIKA ZIENTZIA eta KUDEAKETA PUBLIKOA

2022-2023 IKASTURTEA

“Niaren” narratibak.

**Identitate positiboen eraikuntzarako bidea:
2000 eta 2005 artean nazioarteko adopzioaren bitartez
Txinatik Euskal Herrira iritsitako neskek eraikitako
narratiben azterketa.**

EGILEA: Paula Jie García Cardeñoso

ZUZENDARIA: Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea

2023ko irailaren 13a.

Laburpena

Ikerlan honek 2000 eta 2005 artean adopzioaren bitartez Txinatik Euskal Herrira iritsitako nesken identitate narratibak aztertzen ditu. 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera zabaldu zenetik duela urte gutxi batzuk arte, nazioarteko adopzioak etengabeko igoera izan du, globalizazioarekin areagotu dena. 2004an Espainia munduko bigarren harrera herrialdea izatera iritsi zen, eta Hego Euskal Herrian, Gipuzkoan batez ere, neska txinatar adoptatuen presentzia asko handitu zen. Adoptatu horiek nerabegarora eta helduarora hurbiltzen ari diren heinean, nortasun osatu eta positiboak eraikitzeko laguntza premiazkoa bihurtzen da, adopzioak, batez ere arraza artekoa denean, identitate-narratibak eraikitzeko erronkak baitakartza. Lan honek jorraketa teorikoa eta adoptatuekin zein aditu batekin izandako sakoneko elkarrizketak biltzen ditu. Solasaldi horietatik identitate-narratiban adopzioa positiboki integratzeko diskurtso gaiak atera dira, hala nola adopzio prozesuaren ezagutza, abandonuaren dolua edo arraza eta kulturen integrazioa. Gai bakoitzaren barruan gakoak diren topikoak landu dira. Horrela, lan honen bitartez adoptatuei identitate positiboak eraikitzeko tresna eta proposamenak eskaintzea bilatzen da.

Hitz gakoak: adopzioa, identitatea, narratibak, jatorria, abandonua, arraza, kultura.

Resumen

Este estudio analiza las narrativas identitarias de las niñas llegadas de China a Euskal Herria a través de la adopción entre 2000 y 2005. Desde su expansión a partir de mediados de los años cincuenta hasta hace poco, la adopción internacional ha experimentado un aumento constante, acentuado con la globalización. En 2004 España llegó a ser el segundo país de acogida del mundo y en Hego Euskal Herria, sobre todo en Gipuzkoa, la presencia de niñas chinas adoptadas aumentó. A medida que estos adoptados se acercan a la adolescencia y a la edad adulta, el apoyo para la construcción de identidades completas y positivas se hace urgente, ya que la adopción, sobre todo cuando es interracial, plantea retos para la construcción de narrativas identitarias. Este trabajo incluye un abordaje teórico y entrevistas en profundidad tanto con adoptados como con un experto. De estas han salido temas de discurso que ayudan a integrar positivamente la adopción en la narrativa identitaria, como el conocimiento del proceso de adopción, el duelo por el abandono o la integración de razas y culturas. Se han trabajado tópicos claves dentro de cada tema. Así, a través de este trabajo se busca ofrecer a los adoptados herramientas y propuestas para construir identidades positivas.

Palabras clave: adopción, identidad, narrativas, origen, abandono, raza, cultura.

Abstract

This study examines the identity narratives of girls who arrived in the Basque Country from China through adoption between 2000 and 2005. From the mid-1950s until a few years ago, international adoption has been steadily increasing, helped by globalisation. Spain became the world's second largest host country in 2004, and the presence of adopted Chinese girls in Hego Euskal Herria, especially in Gipuzkoa, increased considerably. As these adoptees approach adolescence and adulthood, support for the construction of complete and positive identities becomes urgent, as adoption, especially when interracial, poses challenges in building identity narratives. This work includes a theoretical approach and in-depth interviews with both adoptees and an expert. From these conversations have emerged topics of discourse for the positive integration of adoption into the identity narrative, such as knowledge of the adoption process, mourning of abandonment or the integration of races and cultures. Key topics have been worked out. Thus, this work seeks to provide adopted persons with tools and proposals for building positive identities.

Keywords: adoption, identity, narratives, origin, abandonment, race, culture.

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

“– Te quiero niña bonita – te susurré.
¿Cómo era posible? ¿Cómo podía nacer tanto amor
a tanta distancia? ¿Por qué una niña de China, un país
tan lejano, me había robado el corazón?”

(Rose Lewis, *Te quiero, niña bonita*)

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| SARRERA..... | 7 |
| 1.1. Lanaren aurkezpena..... | 7 |
| 1.2. Ikerketaren helburuak..... | 9 |
| 1.3. Esker-emateak..... | 9 |
| 2. MARKO TEORIKOA..... | 10 |
| 2.1. Adopzioa..... | 10 |
| 2.1.1. Kontzeptualizazioa..... | 10 |
| 2.1.2. Adopzioa Espainian eta Hego Euskal Herrian..... | 12 |
| 2.1.3. Inplikazio ekonomiko eta sozio-politikoak..... | 16 |
| 2.2. Identitatea..... | 20 |
| 2.2.1. Kontzeptualizazioa..... | 20 |
| 2.2.2. Identitatearen eraikuntza..... | 22 |
| 2.2.3. Adoptatuen identitate eraikuntza..... | 26 |
| 3. METODOLOGIA..... | 30 |
| 3.1. Teknika metodologikoak..... | 30 |
| 3.2. Lagina eta kontaktazioa..... | 31 |
| 3.3. Informazioaren analisirako metodoa..... | 32 |
| 4. NARRATIBEN ANALISI TEMATIKOA..... | 33 |
| 4.1. Adoptatu izaeraren deskubrimendua eta integrazioa..... | 33 |
| 4.2. Adopzio prozesuaren ezagutza..... | 37 |
| 4.3. Jatorriaren eta abandonuaren auzia..... | 41 |
| 4.4. Lehen oroitzapenak..... | 44 |
| 4.5. Kulturen integrazioa..... | 45 |
| 4.6. Arrazaren integrazioa eta esanahia..... | 49 |
| 5. ONDORIOAK..... | 53 |
| BIBLIOGRAFIA..... | 58 |

| | |
|---|-----------|
| ERANSKINAK..... | 62 |
| Elkarrizketatuentzako Informazio Orria..... | 62 |
| Adoptatuentzako elkarrizketa-gidoia..... | 64 |
| Adituarentzako elkarrizketa-gidoia..... | 68 |
| Elkarrizketatuen fitxa teknikoak..... | 72 |
| Baimen informatuak..... | 75 |

EDUKIEN AURKIBIDEA

Grafikoak

| | |
|--|----|
| 1. Grafikoa. Adopzioak espainiar estatuan XXI. mendeko lehen hamarkadan..... | 13 |
| 2. Grafikoa. Nazioarteko adoptatuen jatorri ohikoenak 1999 eta 2013 artean..... | 14 |
| 3. Grafikoa. EAEko biztanleria adoptiboa lurraldearen, adopzio motaren eta generoaren arabera..... | 15 |
| 4. Grafikoa. Adopzio nazional eta nazioarteko adopzioen eboluzioa EAEn (1991-2004)..... | 15 |

Diagramak

| | |
|--|----|
| 1. Diagrama. Autokontzeptu hipotetikoa lau itxura dituen pertsona batentzat (adibidez: neskalaguna, ikaslea) eta horiei lotutako atributuak (adibidez, sexya, arduratsua). Atributu ilunak itxura batekin baino gehiagorekin lotuta daude..... | 24 |
|--|----|

Taulak

| | |
|---|----|
| 1. Taula. Adopzioa bizitzeko moduak: diferentzia eta pertenezia sentimenduak..... | 29 |
| 2. Taula. Adoptatuen profilen zehaztapena..... | 32 |

SARRERA

1.1. Lanaren aurkezpena

Ikerlan honen xedea adoptatuen identitate-narratiben azterketa bat egitea da, Gizarte Psikologiak eskaintzen dituen baliabideei helduta zehazki txinatar jatorridun neska adoptatuen nortasuna Euskal Herriko gizartean nola gorpuzten den ikusteko. Adoptatuen identitate-narratibak ezagutzearen interesa informazio horrek narratiba horiek positiboago bihurtzeko eskaintzen duen aukeran datza, batik bat.

1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera zabaldu zenetik duela urte gutxi batzuk arte, nazioarteko adopzioak etengabeko igoera izan du, globalizazio garaian areagotu dena. Izan ere, nazioarteko adopzioa globalizazioaren desoreken isla da neurri handi batean, haurrak botere-harremanetan periferian kokatzen diren herrialdeetatik erdigunean dauden herrialdeetara mugitzen baitira (San Román, 2015; Martin, 2020; San Román, 2021). Desplazamendu horrek identitate-inplikazioak ditu haurrengan. “Isilpeko migrazio” gisa definitu izan den horretan, adoptatuek etorkinen irudian haien deserrotze sentimenduak eta pertenezia- eta identitate-krisia proiektatu ditzakete. Etorkinen baldintzak bestelakoak izanik, identifikazio hori arriskutsua bihurtu daiteke. Adoptatuek euren baldintza bereziei dagokien zailtasun eta erronka handiak pairatzen dituzte haien identitate-eraikuntzan, eta prozesu horretan laguntzeko osatzen duten elementuak ezagutzea eta lantzea berebizikoa da (Mirabent, 2014). “Garrantzitsutzat jotzen da gure familietan nazioartean hartutako nerabeen egokitzea aztertzea, beren ingurunearekin dituzten kulturarteko eta arraza arteko desberdintasunengatik eta nerabezaroan haien adoptatu nortasunagatik jorratu behar dituzten zailtasunengatik” (Martin, 2018: 37).

Espanian dagoen adoptatu kopuru handiagatik, 2004an munduko bigarren harrera herrialdea izatera iritsi baitzen, lehena biztanle kopuruarekiko (Gómez, 2018; Cartas, 2019; Mayor, 2021; San Román, 2021), eta adoptatu horien gehiengoa nerabezaroaren adin kritikora iristen ari dela edo igaro berri duela kontuan izanik, adoptatuentzako lagungarriak diren ikerketa horien premia are handiagoa da. Gaur egun, ordea, ikerketa gutxi daude Espainian nazioz haraindiko nerabeen prozesuak ulertzen laguntzeko, adopzioa modu masiboan eta gizarte esparruan aldaketa ugariarekin gertatu baita (Martin, 2018).

Aipatutako arrazoiez gain, adoptatuen identitate-narratibak aztertzea eta horien artean txinatar jatorridun nesken narratibetan zentratzeak interes pertsonala du ere. Hain zuzen, txinatar jatorridun neska adoptatua naizen heinean, ikergaia bereziki aberasgarria iruditu zait. Politika Zientziak historia, gizartea eta baita neure burua ere aztertzeko tresnak eskaini dizkit. Horri esker, interseksionalitatearen printzipioari jarraituz, gurutzatzen eta osatzen nauten ardatzak identifikatuz eta nire intereseko gaiak hautatuz joan naiz: etnia, arrazakeria, generoa... eta adopzioa. Neure buruarekin aurrez aurre jarri eta honelako galderak suertatu zaizkit: zergatik egiten zait niri erraz adopzioari buruz hitz egitea eta beste batzuei ez? Asko gara XXI. mendearen hasieran Txinatik Euskal Herrira adopzioaren bitartez iritsi ginenak, hala diote Gipuzkoako Foru Aldundiko (2023) datuek, eta orain, helduarorako bidean lehen pausuak ematen ditugun etapan, norbere bizitzan mugarri den horretan, galderen lanketa geroz eta beharrezkoagoa egingo da. Ez dira gutxi adopzioari buruz oraindik ere aurki daitezkeen estigmak, eta politika zientziako ikasle naizen heinean, gero eta argiago ikus ditzaket guri buruz erakitako estereotipoak, edota edonon aurki ditzakegun arrazakeria zantzuak. Nola aurre egin? Nola eroso sentitu geure begiak, ile kolorea edota sudurra bizi garen gizarteko biztanleriaren gehiengoarekin alderatuta oso ezberdinak izan daitezkeenean?

Galdera horiek erantzuteko eskura dugun tresna identitate-narratiba da. Pertsona bakoitzak balio eta sinismen anitzek osatutako bere bizitzari buruzko diskurtso propioa du, bere irudia osatu eta identifikatzen duena (White eta Epston, 1980/1993, Gómez eta Rojas-ek aipatuta, 2021). Diskurtsoaren arabera, adopzioari, besteen jarrerari, desberdintasunari... esanahiak eman, identitate positibo ala negatiboagoa eraiki eta “autoestimu” osatuagoa, hobe, lor dezakegu. Horrela, bizi-narratibak nola eta zein elementurekin eraikitzen diren ezagupenetik abiatuta, esanahi positiboak ezartzeko tresnak eta baliabideak lor ditzakegu (Iñiguez, 2001). Txinatar jatorridun neska adoptatuen narratibak ezagutzeko, lan honetan lehendabizi oinarritzko bi elementu ezagutzera emango dira: adopzioa eta identitatea. Horretarako, kontzeptualizazioa, adopzioari buruzko datuak zein inplikazio ekonomiko eta sozio-politikoak, eta identitatearen eraikuntzari buruzko azalpen orokorra eskainiko dira. Elementu horiek ezagututa, haien osagaiak adoptatuen bizi-narratibetan nola elkar lotzen diren jakiteko metodologia sakoneko elkarrizketetan agertutako diskurtsoen topikoen analisia izan da. Bigarrenik, beraz, adoptatuen identitate-narratiben eraikuntzarako erabiltzen diren sei topiko aztertuko dira, jarraian ateratako emaitzen laburpena eginik. Azkenik, ondorioak eta identitate positiboak eraikitzeke proposamenak eskainiko dira.

1.2. Ikerketaren helburuak

Gaia: 2000 eta 2005 artean Txinatik adopzioaren bitartez Euskal Herrira iritsitako nesken identitate narratibak.

Helburu orokorra: identitatea narratiba gisa ulertuta, txinatar jatorridun neska adoptatuen nortasuna Euskal Herriko gizartean nola gorpuzten den aztertzea, adopzioak eraikuntza horretan duen paperari bereziki erreparatuta.

Helburu zehatzak:

1. Identitatearen eraikuntza prozesuak ezagutzea.
2. Haurtzarotik gaztaroraino txinatar jatorridun neska adoptatuek haien nortasuna eraikitzeke erabilitako topikoak azaleratzea.
 - 2.1. Amankomuneko elementuak eta ezberdintasun nagusiak identifikatzea.
 - 2.2. Euskal Herriko testuinguru sozio-politikoak eraginik izan ote duen ezagutzea.
3. Txinatar jatorridun neska adoptatuak nola gizarteratzen diren ezagutzea.
4. Adoptatuen identitate-narratiba positiboak eraikitzeke baliabideak eskaintzea eta aurki daitezkeen erronkei buruzko hausnarketa bultzatzea.

1.3. Esker-emateak

Aurrerago ikusiko den bezala, gurasoek eta familiak berebiziko papera dute adoptatuek identitate positiboa eraiki dezaten. Esker bereziak eman nahi dizkiet nire ama eta amabitxi guztiei, nire adopzioa ulertu eta positiboki integratzeko tresnak eman baitizkirate, gradu honetan zehar nire intereseko gaiak izan direnak azken lan honetan batzeko aukera eman didana. Adopzioari, arrazari, generoari edota feminismoari buruz hitz egin badezaket, haiek nire erreferente izateari esker da hein handi batean. Horrekin batera, esker minak ere aipatutako gaiet buruzko ezagutzan sakontzen lagundu didaten nire unibertsitateko eta Erasmuseko lagunei, lau urte hauetan zehar bidelagun izan baititut. Azkenik, eskerrak ikerlan hau aurrera eramaten eta helburuak lortzen lagundu didaten tutoreari, adopzio-elkarteei eta, bereziki, elkarrizketatuak izan diren adoptatuei.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Adopzioa

2.1.1. Kontzeptualizazioa

Adoptatzea, adopzioaren ekintza alegia, “*arrogare aliquem in filium*, norbait, nihor semetzat hartzea, bereztea, hautatzea” edota “norbait, legez, seme edo alabatza hartu” bezala azaltzen du Euskaltzaindiak (2023). Definizio horiek fenomenoaren ulertzeko egon diren bi forma nagusien isla dira: historikoki, adopzioa familia-loturen sorkuntza gisa ikusi izan da. Gaur egun, aldiz, konplexutasun handiagoko prozesutzat hartzen da, ekintza juridikoaren izaera aitortu baitzaio (San Román, 2021).

Adopzioari buruz ulerkera anitzak egotea fenomenoaren dinamikotasunari egotzi behar zaio. Hain zuzen, antzinatek aurki daitezkeen instituzioa bada ere, haren kontzeptzioa denboran zehar eta testuinguru sozial anitzen arabera eraldatuz joan da, garai edo une historiko bakoitzean egon zitezkeen behar, balio edo sinesmenei erantzutearren (Martin, 2020; Mayor, 2021). Antzinako Grezia eta Erroman, adibidez, adoptatuak gizon gazteak izaten omen ziren, kokapen soziala hobetu eta haien jatorrizko familiekin nolabaiteko harremana mantentzen zutenak, adopzio prozesua agerikoa izanik. Kontrara, XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen zati handi batean zehar adoptatuak haurrak izaten hasi ziren, eta nortasun hori izkutatatu egiten zitzairen. Izan ere, garai hartan adopzioaren jardunbidea ezkongabeak ziren guraso biologikoen iraintze juridiko eta sozialean oinarritu zen, beren seme-alaba jaioberriei uko egitera behartuta ikusten zirenak gizarteak ezarritako estigmatik ihes egin eta haien haurrak babesteko (Martin, 2020).

Dena den, historiaren zatirik handienean zehar, eta munduan agertu izan diren zibilizazio handietan, Grezia eta Erroma klasikoetatik India eta Txinaraino, adopzioak bere jatorrizko helburua mantendu izan du: adoptatuaren eskutik adoptatzaileen zaintza ziurtatzea zahartzaroan zehar, eta familiaren izena edo jaraunspena mantentzea, oinordetza-lerroa haren bidez betekotuz (Martin, 2020; San Román, 2021). Adopzioaren jardunbidea betidanik egon izan da helduen interes eta beharrei lotua; duela gutxira arte, adoptatuek bertatik eskuratutako onurak periferikoak, zorioneko istripuak besterik ez ziren (Adamec, 2007, San Román-ek aipatua, 2021).

Fenomenoaren erdigunean haurrak eta haien interesak kokatzea azken hamarkadetan emandako aldaketen ondorio da. Hain zuzen ere, gogoan izan behar dugu haurtzarora, gaur egun ezagutzen dugun zentzu hertsian, asmakuntza berria dela: haren kontzeptualizazioa XVII. mendean hasi zen, bizitzako beste etapa batzuekin (helduaroarekin) alderatuta kualitatiboki ezberdina den etapa gisa ikusten hasi zenean (Ariès, 1962, San Román-ek aipatua, 2021). Are gehiago, haurtzarora babestu egin behar den etapa “zaugarria” dela XX. mendeko ideia da (Levine, 2007; Qvotrup, 2005; Zelizer, 1985, 2005, San Román-ek aipatua, 2021), nazioarteko adopzioa garatzen den mendekoa, hain zuzen (Weil, 1984, San Román-ek aipatua, 2021). Haurtzaroaren paradigma berri hau Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin (HEH) gauzatu zen, 1989an Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak onartua, eta haren printzipioak adopzioari buruzko normatibetan ezarri ziren (San Román, 2021).

Gauzak horrela, gaur egun adopzioa honela definitzen da legegintzako ikuspegitik: erabaki eta egintza judizial solemnea, helburutzat haurrak jaiotzazko jatorriarekin dituen lotura juridikoak bertan behera utzi eta guraso berriekin ahaidetasun-harreman juridikoa ezartzea duena, familia horren behin betiko haur bihurtzeko. Nazionalki edo nazioartean egin daiteke, eta babesgabezia-egoeran dauden adingabeei zuzendua dago, haien babes integrala (legal, psikologiko eta soziala) bermatzeko babes-neurri garrantzitsuenetako gisa. Hain zuzen ere, egungo adopzioa haur orok babesa, maitasuna eta estimulazioa bermatuko dien familia-ingurunerako duen eskubidean oinarritzen da, eta zenbait printzipiok egituratu eta legitimatzen dute, haien artean “adingabearen interes gorenaren printzipioa” eta “iraganarekiko haustura garbiaren printzipioa” (Palacios, 2009; Gómez, 2018; Cartas, 2019; Mayor, 2021; San Román, 2021).

Haurraren interesei helduen interesen gainetik lehentasuna ematen zaien heinean, adopzioak subsidiario izan behar du, hau da, adingabearen ongizaterako bestelako aukerarik ez dagoenean ematen da, harentzako erabateko aldaketa dakarren egintza baita. Autoritateen, psikologoaren eta epaileen onarpenaren beharra du, eta prozesu luzea da, uneoro ikuskatua: adoptatuak zainduko duen bere ingurune hurbileko inor ez duela bermatu beharra dago, eta gurasoek haien egokitasuna eta motibazioak ebaluatuko dituzten probak gainditu behar dituzte (Palacios, 2009; San Román, 2021).


2.1.2. Adopzioa Espainian eta Hego Euskal Herrian

Espainiar estatuan adopzioaren prozesu luze hori bi mailatan banatutako legediak arautzen du: batetik, estatu-mailakoa, eta bestetik, Autonomia Erkidego-mailakoa, aurrekoaren osagarria. Biak ala biak Kode Zibilean bilduta daude, eta erreformen bitartez eguneratu dira, aldaketa nagusiak 21/1987 Legearen (adopzioa haurrak babesteko sistemaren esparruan kokatu zuen) eta 1993ko Hagako Hitzarmenaren (umeen babesari eta nazioarteko adopzioaren inguruko lankidetzari buruzkoa) eskutik emanez. Legediaren arabera, adoptatuak babesgabezia-egoeran aitortu diren adingabeak izan behar dira. Adoptatzaileak, berriz, 25 urtetik gorakoak eta edozein orientazio sexualekoak, beste hainbat ezaugarriren artean. Adopzio nazionalean, Autonomia Erkidego bakoitzeko haurraren babeserako entitate publikoa arduratzen da adopzio-proposamena epaitegietara eramateaz, espediente judiziala osatu eta zenbait tramiteren ondoren gauzatu izan dadin. Nazioarteko adopzioan, ordea, adoptatuaren jatorrizko herrialdearen legedia eta entitateak zein akreditutako Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileak (NAEL) sartzen dira ere. Ondorioz, tramiteak konplexuagoak bihurtzen dira (Palacios, 2009; San Román, 2021).

Egungo araudiaren aurretiko adopzio jardunbidea estatuan luzaroan eman den arren, tornu-etxeen existentzia horren froga izanik, adopzio nazionalak XX. mendeko 70. hamarkadatik aurrera lortu zuen ikusgarritasun soziala, eta nazioarteko adopzioa ez zen fenomeno adierazgarria bihurtu 90. hamarkadara arte, bi gertaera horiek aurretik aipatutako lege eta hitzarmenaren ondorio izanik, hurrenez hurren (Mayor, 2021; San Román, 2021). Dena den, oro har azkenaldian nazioarteko adopzio askoz gehiago egiten dira: 2004an Espainia munduko bigarren harrera herrialdea izatera iritsi zen (Estatu Batuen atzetik), lehena biztanle kopuruarekiko (Gómez, 2018; Cartas, 2019; Mayor, 2021; San Román, 2021). Adopzio asko “arraza” artekoak¹ izan dira, eta hortaz, “ikusgarriak” (San Román, 2021). Hain zuzen ere, Asiatik etorritako adoptatuen kopurua altua izan da urteetan zehar: 2004 eta 2005 artean % 24a Txinatik zetorren. Azken urteotan joera hori mantendu da, 2018an Asiak adoptatuen % 60a eman baitzuen, Vietnam, Txina eta Indiak gehienbat (Gómez, 2018; Observatorio de la infancia, 2020, Mayor-ek aipatua, 2021).


¹ “Arraza” kontzeptua eraikuntza sozial eta historikoa da, askotan konnotazio negatiboduna. Kasu honetan, adoptatua eta adoptatzailearen artean sortzen den aldeari egiten zaio erreferentzia, adoptatua talde etniko-arrazializatu batetik datorrenean. Hau da, harrerako familia eta gizartearekin alderatuta, zeinu fenotipiko eta kultura-ondare idiosinkratiko ezberdineko jatorria duenean.

1. Grafikoa. Adopzioak espainiar estatuan XXI. mendeko lehen hamarkadan.



Iturria: norberak egina. Datuak: San Román, 2021: 12.

2. Grafikoa. Nazioarteko adoptatuen jatorri ohikoenak 1999 eta 2013 artean.



Iturria: Gómez, 2018: 5.

Begirada gurera ekartzen badugu, Hego Euskal Herriko lurralde historikoa osatzen duten bi autonomia erkidegoetan, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Nafarroako Autonomia Erkidegoan, estatuko joera berdinak jarraitzen direla ikus dezakegu. Dena den, Agintzarik (d.g.) argitaratutako txosten batean adierazten den bezala, lurralde hauetako adopzio jardunbideari buruzko argitalpenak urriak dira.

Hortaz, jarraian aurkeztuko den Hego Euskal Herriko adopzioaren testuinguraketa laburra txosten horretan eta *Nazioarteko adopzioak: neska-mutilen eta familien eboluzioa* (2009) ikerketa liburuan oinarritu da, datuak 2004 eta 2006 urteetakoak izanik gehienbat, 2006koak inkesta batzuen bitartez lortutakoak. Datu gehienak EAEn lotutakoak diren arren, adierazitakoa Nafarrora estrapolatu daiteke.

3. Grafikoa. EAEn biztanleria adoptiboa lurraldearen, adopzio motaren eta generoaren arabera.


| Población adoptada y adoptiva | Territorio de residencia | Procedencia: adopción nacional o internacional | Género (*) |
|-------------------------------|--------------------------|--|------------|
| 2.224 menores | 17,54 % ARABA | 25,54 % NACIONAL | 63 % NIÑAS |
| | 49,51 % BIZKAIA | 74,46 % INTERNACIONAL | 37 % NIÑOS |
| 1.934 familias | 32,96 % GIPUZKOA | - Europa 48 % - Asia 25 % - América 26 % | |

(*) Porcentajes correspondientes a Álaba y de valor extrapolable a la CAPV

Iturria: Agintzari, d.g.: 8

2004 eta 2006 aldera, EAEn 2.224 adingabe adoptatu zeuden, eta estatuan bezala nazioarteko adopzioa nagusitzen zen. Aipatzekoa da neska eta mutil kopuruen arteko aldea, neska kopurua ia bikoitza izatera hurbiltzen baitzen (Agintzari, d.g.; Loizaga, Louzao, de Aranzabal eta Labayru, 2009).

4. Grafikoa. Adopzio nazional eta nazioarteko adopzioen eboluzioa EAEn (1991- 2004)



Iturria: Agintzari, d.g. : 10

EAEn urte horietan zehar egondako adopzio kopurua estatu mailan ematen ari zen fenomeno berdina ematearen ondorio litzateke: 90. hamarkadaren hasieratik goranzko joera izan ondoren, nazioarteko adopzioak zifrarik altuenak izan zituen 2004ean, adopzioen kopurua hamar urte atzera joz aurki zitekeen kopuruaren boskoitza izanik EAEn. Gainera, estatu mailan gertatu bezala, adopzio nazionalak beheruntz jotzen jarraitu zuen (Agintzari, d.g.).

Adoptatuen jatorriari dagokionez, Hego Euskal Herriarren kasuan Errusia eta bere eragin-eremu europarra zen adoptatzeko helmugarik gogokoena, adingabeen % 25aren jatorria izanik (2006ko inkestei begiratuta ere, 72 haur ziren jatorri horretakoak, % 16,4a). Hala ere, Txina bigarren kokatzen zen, adopzioen % 21arekin, eta *Nazioarteko adopzioak: neska-mutilen eta familien eboluzioa* (2009) liburuaren arabera, ikuspegi orokor batetik Txina izango litzateke nagusiki haurren jatorria (inkestatuen % 17,9a jatorri horietakoak izanik, 78 haur). EAEn begiratuta, probintziaren arabera adoptatzeko helmugan pisua ezberdina litzateke ere, Asiak pisu erlatibo handiagoa izanik Araban, eta batez ere Gipuzkoan, Bizkaian baino (Agintzari, d.g.; Loizaga et al., 2009). Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren (2023) datuen arabera, 1996 eta 2022 artean Txinak 382 adopzio eskaini zituen, 601 eskaeraren aurrean. Adopzioen erpina 2005ean izan zen, 53 burutu baitziren.

Generoari dagokionez, neska kopurua handixeagoa litzateke: 2006ko inkestaren arabera, 226 neskak lirатеke, hau da, % 54,32a, nagusiki ekialdetik (Txina) etorriak; eta adoptatutako mutilak 190 lirатеke, hau da, % 45,68a, batez ere Ekialdeko Europatik eta Latinoamerikatik etorriak. Adoptatuen ia erdia bi urtebete bete aurretik izan ziren adoptatuak, gehienak erakundeetan bizi izanak. Familia motari dagokionez, familia gehienak bi gurasodunak lirатеke, baina % 10a guraso bakarreko familiak lirатеke, emakume batek osatutakoak. Familia gehienek haur bakarra adoptatuko lukete, neba-arrebadun familiak % 25a izanik, erdiak seme-alaba adoptatuek osatuak, beste erdiak seme-alaba biologikodunak izanik. Familien % 38a Adopzio Erakundeekin harremanetan egondakoa litzateke, Ume Alaia izanik gogokoen (Loizaga et al., 2009).

Aurkeztutako datuei erreparatuta, argi dago Txinak emaile herrialde gisa duen presentzia izugarria, eta arreta deitzekoa da Gipuzkoak haren harrera lurralde gisa izan duen pisua. Hori dela eta, lan honetan adopzioa aztertzeke eszenatoki apropos bezala hartu da.

2.1.3. Implikazio ekonomiko eta sozio-politikoak

Orain arte azaldutakoaren arabera, gaur egun adopzioa adingabekoen (batez ere haurren) babes-neurri garrantzitsuenetariko gisa ulertzen da, helburutzat legalki ahaidetasun-harremanak ezartzea duena. Jardunbidearen konplexutasuna, ordea, ez dator bere izaera juridikotik soilik. Adopzio prozesuak eta ahaidetasun-harremanen ezarpenak implikazio ekonomiko eta sozio-politiko anitzak ditu, jardunbidea beste ikuskera batzuekin ulertzera bultzatzen dutenak. Horien artean, Beatriz San Román (2021) Gizarte Psikologian doktoreak proposatutakoak adopzioaren implikazioak ikusteko lagungarriak dira:

Batetik, adopzioa laguntza bidezko ugalketa teknika gisa ikus daiteke. Izan ere, adopzioak, bere forma zaharretik gaur egunera arte, sozialki eraturako ahaidetasunak ezartzeko balio izan du, eta harreman horien ezarpena ugaltzeko nahiarekin lotuta egon da, dela oinordetza-lerroa betikotzeko, antzina bezala, dela guraso bihurtzeko nahia betetzeko, gaur egun bezala. Ikuskera horrek badu ondorio sozialik, gurasotasunaren kontzeptualizazioa birplanteatzera bultzatzen baikaitu, lotura biologikoen eta ugalketa heterosexualaren ondorio bezala definitzeari utzi eta gizarte-prozesu gisa ulertzen hasteko. Ikuskera horretatik lerrokatutako ikerketek aipatutako kontzepzio klasiko hori kolokan jarri eta gurasotasuna eta ahaidetasuna nahi eta ekimen sozialtzat definitu dituzte (Martin, 2020; San Román, 2021).

Implikazio sozialekin batera, implikazio politikoak datoz ere, adopzioa laguntza bidezko ugalketa teknikatzat hartzean biopolitikaren eremuan sartu baitaiteke: izan ere, ugalketa kudeatzeko gobernugintzaren baliabide bihur liteke, XIX. mende bukaeran eta XX. mendean zehar Espainiar estatuan gertatu antzera, esate baterako. Aurretik azaldu bezala, garai hartan ezkongabeak ziren guraso biologikoen (batez ere amen) iraintze juridiko eta sozialean oinarritutako adopzio nazionala nagusitzen zen. Psikiatria, gizarte-langintza eta eugenesia bezalako bitartez, ezkongabeak gurasotasunerako desegokitzat estereotipatzea bilatu eta ezkongabetasunean egindako ugalketa konpondu beharreko arazo moral bihurtu nahi zen. Testuinguru horretan, haustura printzipioaren ikuskeran oinarritutako adopzio erregistro berriak ireki ziren, ezkongabeko guraso horien haurrak antzutasun arazoak zituzten senar-emazteei emateko, aurrerantzean haien seme-alaba biologikoak “izango balira bezala” tratatuak izan zitezen ideiarekin (Martin, 2020). Horrela, populazio zehatz bati ugaltzeko aukera ukatu eta beste bati ematen zitzaion.

Gaur egun adopzioa irain juridiko eta sozialak sortzeko erabiltzea bidegabe eta ez-etikotzat ikusten den arren (Martin, 2020), paradigma aldaketa azalekoa izan da. Adopzioa haurrak babesteko neurria bada, haur horiek zerbaitengandik babestu behar direla esan nahi du. Kasu askotan, zerbait hori haien guraso biologikoak liriateke, adinaren, egoera zibilaren edo maila sozioekonomikoaren arabera epaituak izaten direnak. Babesgunea, aldiz, familia adoptatzaileak dira, “egokiak” eta normatiboak, askotan antzutasun arazodunak (San Román, 2021). Beraz, babes-neurri izaera aitortu zaion arren, adopzioak ugalketa kudeatzeko gobernugintzaren baliabide izaten jarraitzen du ere, neurria osatzen duten printzipio, lege eta araudiek guraso izan daitezkeen horiek zehaztuko baitituzte. Ez hori bakarrik, adopzioa jaiotza-tasa baxuen arazoari aurre egiteko laguntza bidezko ugalketa teknika da ere, bereziki erabilgarria Espainiar estatuarentzat, 1995tik Europar Batasuneko ugalkortasun-tasa baxuenetarikoa duen herrialde bat baita (San Román, 2021).

Espainia “egiturazko antzutasuna” pairatzen ari da: amatasun eta familiaren aldeko politika publikoen urritasun edo gabezia (Comas et. al., 2016, San Román-ek aipatua, 2021), emakumeek euren karrera profesionala haurrak edukitzearekin kaltetua izan daitekeela hautematea (Delgado, 2007, San Román-ek aipatua, 2021), edota lan prekarietatea, zaintza-lanen banaketa desparekoa... (Valiente, 2003, San Román-ek aipatua, 2021) bezalako faktoreen ondorioz, lehen haurdunaldirako adina atzeratuz joan da, eta antzutasun arazoak maizago agertu dira. XXI. mende hasieran nazioarteko adopzioak izandako izugarritzko garapena testuinguru horrekin lotzen da: jaiotza-tasak behera egin ahala, adopzioen kopurua haziz joan zen, eta Espainiar estatua munduko bigarren harrera herrialdea izatera iritsi zen (San Román, 2021). Neurri handi batean, guraso bihurtzeko egon daitezkeen baliabideen artean adopzioak lortutako sekulako indar hori gizartean zabalduetako diskurtso zehatz baten ondorioztat har genezake, horren hedapenean estatuak esku hartze handia izanik: “erreskate” ideologia (San Román, 2021).

Diskurtso horrek zuzeneko lotura du adopzioa ulertzeko bigarren ikuskerarekin: adopzioa haurren zirkulazio gisa uler daiteke, haurrak talde sozialen (eta herrialdeen) artean mugitzen dituen heinean. Desplazamendu horren atzean haur horiek “erreskatatu beharraren” ideia aurki daiteke. Izan ere, nazioarteko adopzioaren jatorria gerra egoerarekin lotuta dago; jardunbidea 1950ko hamarkadaren erdialdean, Koreako Gerraren (1950-1953) ostean, hasi zela esan zitekeen. Vietnamgo Gerrarekin (1955-1975) haurrak kontinentetik eta gerra

egoeratik ateratzeko premia handitu zen, eta nazioarteko adopzioari bidea ireki zitzaion. Hurrengo hamarkadetan herrialde emaileen kokapena Asiatik beste kontinente batzuetara zabaldu zen arren, 1995an Espainian nazioarteko adopzioak hasi zirenean haur gehienak Txinatik (eta Errusiatik) heldu ziren, arestian azaldu bezala (San Román, 2015; Martin, 2020; San Román, 2021). Txinaren kasuan, ordea, iada ez ginateke gerra egoera bateko “erreskatean” kokatuko, herrialde baten biopolitikak eragindako zaurgarritasun egoera baten aurreko “erreskatean” baizik.

Txinatik adoptatzearen hautuarekiko joera handia haur txinatarrak “Haur-bakarraren politika”²-ren (Vox, 2023) ondorioetatik “erreskatatu” nahiari legoke. Hain zuzen, Espainian nazioarteko adopzioei bide egin zitzaien urte berean *Las habitaciones de la muerte* (1995) dokumentala estreinatu zen mundu-mailan, neurriaren ondorioz abandonatutako haurrek umezurtz etxeetan pairatzen zituzten baldintza gogorak salatzen zituena ezkutuko kamera batekin grabatutako irudien bitartez. Dokumental britainiarrak elkartasun-oldea eragin zuen nazioartean, eta adopzioen eskaeren igoera handia eragin zuen, estatu-mailan ere nabaria izan zena; 1995 eta 2015 artean, Txinatik 18.000 adingabe inguru iritsi ziren (Ibáñez, 2015). Datu horrek adierazten duenez, haur txinatarrak baldintza horietatik “erreskatatu” behararen diskurtsoa ez zen dokumentala estreinatu ondorengo urteetara mugatu. 2015ean El Diario Vasco egunkarian argitaratutako artikulu batek hogeitaz urte beranduago oraindik ere estatuan diskurtso hori hedatzen ari zela adierazten digu: artikuluaren izenburuak adoptatutako haurrak “neskato triste” gisa definitzen zituen, “bizi-baldintza krudeletatik” iritsitakoak. Adopziozko gurasoen testigantzen arabera, Txinatik adoptatzeko erabaki asko dokumentala ikusi ondoren hartutakoak lirateke, eta haien gorrotoa herrialdeari eta haren biztanleei baino, txinatar gobernura eta “Haur-bakarraren politika”-ra zuzenduko litzateke (Ibáñez, 2015).

Aipatzekoa da artikuluaren izenburuak neskatoei egiten diela erreferentzia. Hain zuzen, adopzioan genero auzia islatzen da. Aurretik aipatu bezala, 2004 eta 2006 aldera EAEn aurkitu zitezkeen adoptatuen artean % 63a inguru neskak lirateke. Txinaren kasuan, bertatik etorritakoen ia gehiengoa neskak lirateke (Loizaga et al., 2009). Izan ere, Txinako gizartea oso patriarkala litzateke, eta bertako emakumeen testigantzen arabera, semeak edukitzeari lehentasuna emango litzaioke alabak edukitzearen aurrean (Xue, 2003, 2011).

² 1980an gobernu txinatarrak ezarritako neurria, familia bakoitzeko haur bakarra onartuta, antzuteak eta eragindako abortuak bezalako beste neurriekin batera populazioaren gehiegizko hazkundea kontrolatzeko.

Haur bakarria izatera derrigortutako familietan, balore patriarkalek nesken abandonua bultzatu eta egungo txinatar gazte populazioaren genero desoreka eragin zuten (CNA Insider, 2018).

Beraz, Txinatik eta, oro har, nazioartean egindako adopzioak haurra baldintza lazgarriak dituen herrialde batetik baldintza hobeak eskaintzen dizkion herrialde batera mugitzeko aukera gisa ikusteko joera dago. Ikuskera horrek, ordea, kritika anitzak jaso ditu, bere inplikazio soziopolitiko eta ekonomikoak direla eta: batetik, “salbatzaile zuriaren” diskurtsoarekin lotutako ikuskera litzateke. Izan ere, adopzioa errenta baxuko herrialdeetan haurrek pairatzen dituzten arazoan aurreko konponbidetzat ikusi nahi izan den arren, askotan adoptatzaileen eta harrera herrialdeen interesei lehentasuna emateko baliabidea izan da, haurren eta familia emaileen eskubideen urraketarekin (San Román, 2021). Ez hori bakarrik, haurrak logika merkantilista bateko kontsumo-ondasun bihurtu izan ditu ere, gurasotasun nahia asetzeko merkantzia. Ondorioz, gaur egungo baldintza juridikoek adopzioaren atzean irabazi ekonomikorik edo guraso biologikoen eskubideak errespetatzen dituen haurraren babesaz beste edozein motatako interesik ez dagoela bermatzea eskatzen dute (San Román, 2021; Palacios, 2009).

Haurren zirkulazio merkantilista mundu globalizatuan dauden estatuen arteko harremanen erakusle izan da. Azken finean, nazioarteko adopzioetan haurrak botere-harremanetan periferian kokatzen diren herrialdeetatik erdigunean dauden herrialdeetara mugitzen dira, globalizazioan dauden desorekak eta harreman esplotatzaileak birproduzitzeko balio duena, zaintza-kate globalekin gertatu bezala (San Román, 2021). Desplazamendu hori haurren onespenerik gabeko “isilpeko migrazio” gisa definitu izan da. Kasu gehienetan mugimendua herrialdeen arteko mugen artekoa izateaz gain arraza eta etnia artekoa den heinean, adopzioak identitate-inplikazioak ditu haurrengan. Zenbait herrialdeetan nazioarteko adopzioari Espainian baino hainbat hamarkada lehenago eman zitzaion hasiera. Herrialde horietan “jatorriak” edo “sustraiek” (jatorrizko kulturak, alegia) eta transarrazalitateak adoptatuen identitate pertsonal eta sozialen eraikuntzak izandako papera sakonki aztertu dute (San Román, 2021).

2.2. Identitatea

2.2.1. Kontzeptualizazioa

Gizarte Psikologiako erreferentziatzko zenbait autoreren arabera, (James, 1890; Cooley, 1902; Mead, 1934-1963; Tafjel, 1972; 1974; 1981, Lorenzi-Cioldi eta Doise-k aipatuak, 1996), identitatea berdin-berdina ez den horretan errotuta dago, desberdintasun baten eraikuntza litzateke. Hain zuzen, identitate pertsonala “gure gorputza, adimena, harremanak eta, beraz, gure nortasuna guri dagokigun ni baten zati gisa sentitzeko gaitasun gisa uler daiteke, bakarra eta bizi garen gainerako pertsonengandik bereizia” (Loizaga, 2013: 1). Gure identitatea sentitzeko gureak diren nolakotasun eta ezaugarrien bilaketa ezinbestekoa da, eta ezaugarri horiek berezkoak eta gure ingurukoek dituztenengandik desberdinak sentitu behar ditugu. Izan ere, pertsona guztiok, inkontzienteki bada ere, bakarrak izatea bilatzen dugu; identitateak eskusibotasuna eta diferentzia bilatzen du hazi eta garatzen ari dela sentitzeko (Loizaga, 2013).

Hain zuzen, Iñiguez-en (2001: 1) arabera, identitatea bi elementu horien arteko dilema da, “norberaren berezitasunaren eta gure kideekiko antzekotasunaren arteko dilema, pertsonaren berezitasunaren eta besteekiko antzekotasunaren artekoa, gure izateko edo sentitzeko moduaren berezitasunen eta portaeraren homogeneotasunaren artekoa, bataren eta anizkoitzaren artekoa”. Gure ingurukoekin identifikatzeak nor garen jakitearen segurtasuna bermatzen digun heinean, bereizketak besteekin nahastuak izatea ekiditen du. Dilema horretan identitate soziala eta identitate pertsonalaren kontzepzioak eraikitzen dira: taldeko esperientzia, lotura eta sareak, eta pertsonaren berezitasuna. Izan ere, identitatea, bai banakakoa bai soziala, errealitate natural, biologiko eta/edo psikologikoa izatetik haratago doa, gizarte bakoitzak historian zehar landutako eraikuntza da, arau sozialekin, hizkuntzarekin, kontrol sozialekin, botere-harremanekin azken batean, hau da, subjektibotasunen ekoizpenarekin zerikusia duen zerbait (Iñiguez, 2001).

Identitatea testuinguru soziohistorikoaren araberrako eraikuntza den heinean, haren kontzeptualizazioa problematikoa izan da, eta esentzialismo zein naturalizazio handitik txikirako ulerkerak agertuz joan dira, “identitate” klasikotik “*self*” berriraino: kontzeptualizazio esentzialistenean, biologizismoan, identitatea natura biologiko edo gorputzetik emanda dator. Kontzeptualizazio internalistan, aldiz, portaerak eta esperientziak

norbanakoaren ustezko “barruko” batetik datoz, ulerkera fenomenologikoan norberaren kontzientzia izatera igarotzen dena, identitatea agentziarekin eta testuinguru sozialaren mugei aurre egitearekin batera osatzen duena. Esentzialismotik gehien urruntzen den kontzeptualizazioa, lan honetan oinarritzat hartuko dena, ulerkera narratiboa litzateke. Horren arabera, bakoitzaren identitatea norberak bere buruari buruz duen narrazioa da, hizkuntzaren bitartez garena interpretatuz, geure buruari eta gainontzekoei buruzko irudi bat sortuz eta narrazio hori gure testuinguru sozialean komunikatuz eraikia. Identitatea testuinguru sozial horrek baldintzatutako balore eta sinismenekin osatutako autodefinizioa litzateke (Iñiguez, 2001). Testuinguru sozialak identitatearen eraikuntzan duen garrantzia kontuan hartuta, beharrezkoa dugu kontzeptualizazio narratiboarekin batera Gizarte Psikologian identitateari buruz dauden perspektiba berriek diotena kontuan hartzea: identitatea edo *self*-a harreman sozialekiko kontingentea da, haietan sortzen da, eta ez aurretik. Ez da esentzia bat, eraikitzen duen gizarte, kultura eta historian existitzen da, eta kokatzen den testuinguruaren arabera, aktoreak portaera edo irudikapen (identitate) bat ala beste hautatuko du (Mead, 1934; Goffman, 1959; Gergen, 1991, 1994; Iñiguez-ek aipatua, 2001).

Identitatea edo *self*-a, beraz, teoria kultural bat da, pertsona izateari buruzko sinismenen bilkura (Iñiguez, 2001). *Self*-ari edo identitateari buruzko nozio desberdinak dituzten kulturei begiratzerakoan, psikologiatik oro har bi hurbilkera nagusi bereizi dira: kultura kolektibistena, ekialdeko kulturetan aurki daitekeena, identitatea kolektiboarekin lotzen duena; eta kultura indibidualistena, mendebaldeko kulturetakoa, identitatea banakoarekin lotuagoa ulertzen duena (Libby eta Eibach, 2007). Hala ere, mendebaldeko kulturen artean bi tradizio bereizi daitezke ere: Ipar-Amerikako hurbilkera, identitatea batik bat kontzeptu indibidualistetan eta autokontzeptuan oinarritzen duena; eta hurbilkera europarra, lan honetan erabiliko dena, identitatea taldearen esperientziarekin lotzen duena eta identitate sozialaren edo autokategorizazioaren perspektiba paradigma nagusitzat duena (Simon, 2004). Iñiguez-ek (2001) adierazten duenez, identitate pertsonalaren ideiak mendebaldean subjektibitate pertsonalari buruz garatutako ikuskera betetzen duen arren, identitatearen alor soziala barneratzeko arazoak ditu. Gauzak horrela, aipatutako identitate sozialaren ideia garatu da, horren eraikuntza azaltzeko identitate sozialaren teoriarekin batera. Teoria hori ulertu ahal izateko, baina, identitate pertsonalaren zenbait elementu ezagutu behar dira lehenik: interakzionismo sinbolikoa, “rolen teoria” eta identitatearen teoria.

2.2.2. Identitatearen eraikuntza


Soziologiak Gizarte Psikologian egindako ekarpenen arabera, gizarte-bizitza egituratua dela kontuan hartu beharra dago, egitura horrek pertsona sozialaren garapenean eta gizarte-portaeren sorkuntzan eragiten baitu (Simon, 2004). Egitura horrek eragiteko duen moduetako bat Mead-ek (1934/1993, Simon-ek aipatua, 2004) garatutako interakzionismo sinbolikoaren teoriak azaltzen du: haren arabera, pertsonak izaki sozialak diren heinean, haien arteko ekintzen esanahia ulertzeko beharra dute, horretarako sistema nagusia hizkuntza izanik. Hizkuntzaren bitartez gizartearekin harremandu ahala, esanahidun ikur edo sinboloak sortzen dituzte, eta harremantze horietatik adimena eta *self*-a sortu. Harreman sozialetan egoera baten definizioa negoziatzen dute, eta negoziazio horretan egoeran parte hartzen ari diren aktoreak definitzeko esanahidun kategoria edo posizioak sortzen dituzte (“irakasle”, “seme”, “intelektual”...), gizarteak emandako espektatibekin lotzerakoan “rol” edo eginkizun bihurtzen direnak (Simon, 2004).

“Rol” horiek erabiliz gainontzekoek norbait definitu dezakete, eta norbait horrek bere burua definitu dezake ere, jarduera gogoetatsuekin, autodefinizioaren bitartez, *self*-aren eraikuntzaren bitartez alegia. “Rol”-ak identitatearen edo *self*-aren eraikuntzarako elementu garrantzitsua dira, beraz. “Rolen teoria”-ren arabera, harreman sozial gehienak ematen diren lehendabiziko egiturazko testuinguruak taldeak dira. Taldekideek espektatiba edo “rolen” arabera jokatzeko dute, hau da, produktu kultural edo sozial finkatuen arabera, sozializazioaren bitartez ikasitakoak. “Rol” bat ala bestearen arteko hautaketak identitatea osatzen du, eta hautaketa hori gizartearen eta taldekideen presiopean egin ohi da (Simon, 2004).

Besteen begiradak pisu handia du identitatearen bilaketarako prozesu konplexuan. Pertsona guztiek galdetzen diote euren buruari zein diren, nola ikusten dituzten eta besteek nola sentitzen dieten. Erreferente horiek beharrezkoak dira geure burua ulertzeko, besteek egiten diguten *markaketa positibo ala negatiboak* horri eta pertsona gisa ber-pentsatzeko moduari irudi eta hitzak ezartzen baitizkio. Markajea ulerkeran, entzutean, aditzean eta batez ere mezuak bidaltzen dituen *bestearen aitortzan* oinarritutako prozesua da. Beste horrek nola sentitzen, ikusi edo irudikatzen, ulertzen eta aitortzen gaituen moduari buruzko eskemak barnerarazten digu. Hau da, *besteak*, haren komunikazioarekin, identitatearen eraikuntza *erraztu, zaildu edo traumatizatu* egiten digu (Loizaga, 2013).

Identitatearen teoriak “rolen teoria” eta interakzionismo sinbolikoa lotzen ditu. Haren arabera, egituratutako “rol” harreman askotan parte hartzen dutenez pertsonak identitate anitzak dituzte. Identitate horiek haien garrantzi edo nabaritasun arabera hierarkia (*salience*) batean antolatuta daude, eta haien kokapenaren arabera, pertsonak konpromezu handiagoa edo txikiagoa izango du horiekiko. Konpromezu hori bete beharreko “rola” bertan behera uztearekin datozen ondorien arabera litzateke, eta klaseak, generoak edo adina bezalakoek zuzeneko eragina dute, harreman sozialetan parte hartzea erraztu edo zaildu baitezakete. Laburbilduz, identitateak erlazionalak dira, sozialki eraiki eta egituratuak. Pertsona batek identitate anitzak izan ditzake, eta ondorio sozialak dituzte (Stryker, 1980, 1987, Simon-ek aipatua, 2004). Identitate anitz edo norbere buruari buruzko itxura anitz bakoitzari lotuta hainbat izaera edo atributu aurki daitezke, eta batzuetan atributu bat itxura bati baino gehiago lotuta agertu daiteke. Lotura horiek identitatearen konplexutasuna adierazten dute pertsonaren arabera eskema batean (McConnell eta Strain, 2007).

- 1. Diagrama. Autokontzeptu hipotetikoa lau itxura dituen pertsona batentzat (adibidez: neskalaguna, ikaslea) eta horiei lotutako atributuak (adibidez, sexya, arduratsua). Atributu ilunak itxura batekin baino gehiagorekin lotuta daude.**



Iturria: McConnell eta Strain, 2007:58

Interakzionismo sinbolikotik, “rolen teoria”-tik eta identitatearen teoriatik identitate sozialaren teoria garatzen da. Identitate pertsonala pertsonen arteko edo talde bateko kideen arteko konparaketen bitartez eraikitako autodefinizioa den heinean, norbanakoaren berezitasuna azpimarratzeko eginga, identitate soziala taldekide izaera azpimarratzeko eraikia dago. Exotaldearen eta endotaldearen arteko konparaketen bitartez autodefinizioa eraikitzen da ere, identitate soziala “norbanako baten norberaren kontzeptuaren zatia, talde sozial baten (edo batzuen) kide izatearen ezagutzatik eratortzen dena, kide horri datxekion balio eta esanahi emozionalarekin batera” (Tajfel, 1978: 63, Simon-ek aipatua, 2004) bailitzateke.

Testuinguruaren arabera, identitatea pertsonen arteko poloan ala talde arteko poloan eraikitzen da, beti besteekiko konparaketa sozialaren bitartez. Talde arteko poloan *gutxieneko taldearen paradigma* agertzen da: identitate soziala eraikitzeko norbanakoek talde sozial bateko kide izatea bilatzen dute, eta talde hori besteengandik bereiziz endotaldearen eta exotaldearen arteko banaketa osatzen dute. Identitate sozial positiboa lortu nahi den heinean, taldeen kategorizazio horretan konnotazio positibo edo negatiboak emango zaizkio talde bat ala besteko kide izateari. Konnotazio horiek taldeen arteko konparaketan izan dezakete soilik esanahirik. Identitate sozial positiborako beharrari jarraiki, norberak bere taldea beste taldeekiko positiboki alderatzeko joera dago (Lorenzi-Cioldi eta Doise, 1996; Simon, 2004). Izan ere, identitate sozialei buruzko literatura europearrak taldeko kide izatea norberaren identitatearen osagai garrantzitsua dela dio. Gauzak horrela, gizabanakoak beren taldeak positibotzat, beste taldeetatik bereizitzat, hartzeko motibatuta daude ere (Oyserman, 2001).

Orain arte ikusitakoaren arabera, beraz, identitatea “rol” edo itxura anitzen artean eraikiko litzateke, besteekiko harreman sozialetatik eskuratzen direnak eta harreman horietan esanahi bat ala beste hartzen dutenak. “Rol” horiek eta haien agertoki diren harreman sozialak taldeetan emango lirateke, eta ondorioz, pertsonak talde sozialen kide izatea bilatzen dute, taldekidetzat haien identitatearen parte izanik ere. Elementu guzti horiek McConnell eta Strain-ek (2007) identitatearen edo autokontzeptuaren edukia deitzen dutena (*self-concept content*) eraiki eta osatuko lukete, hau da, nor bere buruari buruz egia dela uste duen hori. Autoreek dioenez, ordea, kontuan hartu beharra dago eduki hori egituratuta dagoela ere, antolatuta, alegia. Autokontzeptuak badu egitura bat ere (*self-concept structure*): hura osatzen duten elementuak irudikatzeko modua oroimenean, hain zuzen. Izan ere, “autokontzeptuak oso egituratuta dauden oroimen-egiturak dira, ezaugarri kritikoak dituztenak, zeinak, aparteko eskuragarritasuna edukitzeagatik, norberaren eta besteen jokaeren eta ezaugarrien interpretazioak gidatzeko balio duten” (McConnell eta Strain, 2007: 55).

“Oroimen autobiografikoaren eta norberaren zentzuaren arteko erlazioa prozesu dinamiko eta interaktibo bat da, zeinetan norberak eta memoriak elkar antolatzen, eraiki eta elkarri zentzua ematen dioten modu intimoan, non benetan esan dezakegula gogoratzen duguna garela eta gure oroitzapenak geu garela” (Tessler eta Nelson, 1994: 321, Libby eta Eibach-ek aipatuta, 2007: 88).

Libby eta Eibach-ek (2007) diotenez, gogoratzen dugun iragan pertsonala geure buruari buruz dugun zentzu edo ikuskerak baldintzatzen du, eta alderantziz, gogoratzen dugun iraganak geure buruari buruzko irudiarengan eragiten du. Haien hitzetan,

“pertsonen kulturalki definitutako norberaren nozioak, haien ezaugarri indibidualei buruz dituzten sinesmenak eta desiratzen diren norberaren irudiak babesteko duten motibazioak bai iragan pertsonaletik gogoratzen dutenari bai eta oroitzapen horiek subjektiboki bizitzeko moduari ere eragiten diote. Era berean, oroimen autobiografikoaren edukiak eta esperientzia subjektiboak eragin handia dute pertsonen duten iraganeko portaeraren ulermenean, gerora bere ezaugarri eta atributuei buruz ateratzen dituzten ondorioetan eta denboran zehar norberak jasandako aldaketaren zentzuan” (Libby eta Eibach, 2007: 89).

Self, autokontzeptu edo identitatea eta memoria edo oroimena, beraz, elkarrekin harmonizatuz denboran zehar koherentea den *self*-aren artikulazio bat ekoiztea bilatzen duten ahotsak izango lirateke (Libby eta Eibach, 2007). Elkarreragin honen bitartez *self*-a egonkorra eta aldi berean aldakorra dela esan genezake. *Self*-a agente aktiboa da, kokatzen den nitasunaren kulturaren arabera lehiakortasuna edo lankidetzatza, bizitzaren fase desberdinetan ager daitezkeen gatazken konponketa eta mundu errealeko kontzeptu edo hitzen ezagutza altua bilatzen duena (Brown, 1998, Oyserman-ek aipatua, 2001), baina aldi berean esperientzia eta harreman goiztiarrek asko moldatu eta baldintzatzen dute (Oyserman, 2001). *Self*-a egonkorra eta aldi berean aldakorra dela jakiteak garrantzi handia du aldaketei eta norbere buruaren hobekuntzari buruzko teorientzako (Oyserman, 2001).

Identitatearen eraikuntzaren oinarrian osotasun pertsonal baten bizipena dago, gero eta garrantzitsuagoa. Psikologiaren arabera, identitate osatu edo nortasun integratu eta positibo bat eraikitzeak norbera bere buruarekin gustora egotea, norbere ekintzak zuzentzea, besteekin harremantzea eta moralki bakoitzaren ekintzen arduradun izatea ahalbidetzen du. Identitate zatitu edo nahasi batek, aldiz, ondoez psikologiko eta emozionala, larritasuna, ekintza nahasiak, aurreikusia izateko ezintasuna, harremanen porrota eta norbere ekintzen arduradun morala bihurtzeko zailtasuna ekar dezake (Berastegui eta Gomez, 2007). *Self*-a agente aktiboa dela eta, hortaz, behar denean egonkor mantendu edo aldatu daitekeela jakiteak identitate osatu edo nortasun integratu baten bilaketa bermatzeko balio digu. Horregatik ere identitate narratiben elementuak ezagutzeak inpaktu positiboa izan dezake, lan honekin lortzea bilatzen dena.

2.2.3. Adoptatuen identitate eraikuntza

Argi dago identitate integratu bat eraikitzea garrantzitsua eta beharrezkoa dela. Azken finean, identitateak, norbere buruari buruzko narrazio edo autokontakizun gisa, sujetuaren ekintzak eta bere mundu kognitibo eta emozionala antolatzen ditu. Baina ez hori bakarrik, garrantzi sozial handia du ere, nor garen galderari erantzuteaz gain zeinenak garen edo geureak zeintzuk direnaren auziari erantzuten baitio ere, identitateak talde sozialen kide (familien kide, adibidez) garela ohartzea ahalbidentzen digun heinean (Berastegui eta Gomez, 2007; Loizaga, 2013). Geure buruari buruzko autonarrazio osatu bat eraikitzeko, pertsona guztiek, ez adoptatuek soilik, gure historiaren datu esanguratsuen beharra dugu. Identitate bat osatzearren, denok bilatzen dugu gure bizi-historia, gure jatorria. Datu horiek ezin badira zuzeneko memoriaren bitartez eskuratu edo estigma, sufrimendua eta dolua badakarte, horiek lortzeko zailtasuna handitu egiten da (Berastegui eta Gomez, 2007). Kontuan hartu beharra dago autonarrazioa osatzeko datuak eskakizun sozialen araberakoak direla, ez dira psikologia unibertsaleko ezaugarriak, eta familietako memoria hausturak (gerra, bortxaketak...) kulturaren arabera bizi dira ere. Dena dela, subjektua izateko “memoria”-ren eraikuntza beharrezkoa da beti, modu batean ala bestean (Apodaka, d.g.).

Adoptatuen kasuan, datuak eskuratzeko zailtasuna bereziki esanguratsua da, eta haien identitatearen eraikuntzan duen eragina are nabariagoa: “adoptatuek, adopzioaren aurretiko beren historiaren zati batzuk ezagutzen ez dituztenez, etorkizuna proiektatzeko beren iraganeko historia orainean lotuko duen narratiba koherente bat eraikitzeko zailtasuna dute, eta horrek parekoen aurrean desabantaila bat eragiten die” (Martin, 2018: 40-41). Gehiengoarena ez bezala, adoptatuen identitatea ondare bikoitzaren araberakoa da: familia biologikoarena eta adopziozko familiarena. Adoptatuak ez diren haurrek haien ondarea, informazio identitarioa, naturalki, ia ohartu gabe jasotzen dute informazio horren emaile nagusiengandik, guraso eta familiakideengandik, alegia. Haien jatorriari buruzko galderak erraz erantzun ditzakete. Adoptatuen kasuan, informazioaren jasoketa erlatiboki “naturala” (ez-traumatikoa) izan daiteke ere (Apodaka, d.g.), baina lehenengo ondarea (historia pertsonalerako oinarritzakoa dena) ezezaguna dela jakitean, identitate pertsonal bat garatzea are zailagoa bihurtzen da. Izan ere, adoptatuek identitate osasuntsu bat integratu dezaten, hau da, iraganarekin eta etorkizunarekin jarraipena duen norberaren esperientzia osasuntsu bat osatu dezaten, haien aurrekari genetiko eta sozialak zein haien adopzio istorioa nahikoa ezagutu behar dituzte (Berastegui eta Gomez, 2007; Mirabent, 2014).

Adoptatuek adopzioari buruzko honako informazioa behar dute identitatea eraikitzeko: adopzioa berari buruzko informazioa, gertaerari buruzko datuak eta haien bizitza zehatzean adopzioaren istorioak duen esanahia. Jatorriari buruzko ezagutza hori beren buruari buruzko narrazio jarraitu batean integratu ahal izan behar dute, adoptatu izaera edo estatusa eta horren atzeko abandonatze esperientzia barneratu, azaldu eta nolabait justifikatzen duen narratiba bat eraikitzeko. Integrazio hori prozesu hirukoitz baten bitartez ematen da: eskuragarri duen informazioaren ezagutza, beharrezkoa duenaren bilaketa eta, azkenik, adopzioaren aitortza bere istorioaren eta eraikuntza pertsonalaren zati integral gisa (Berastegui eta Gomez, 2007; Mirabent, 2014).

Arraza arteko adopzioen kasuan, familia biologikoaren ondareak duen eragina are handiagoa da. Jatorri biologikoa zein adopzio istorioa integratu behar izateaz gain, adoptatuak arrazaren auzia integratu beharra du bere buruari buruzko narrazioan: “arrazalderdiaren integrazioak eragin zorrotza du identitatearen eraikuntzan. Etnia baten berezko ezaugarri fisikoak balio-, sinesmen-, ohitura-, talde- eta gizarte-esperientziekin lotuta daude, eta adoptatuak ez du halakorik” (Mirabent, 2014: 23). Adopzioaren eraginez, adoptatuak ez du bere ezaugarri fisikoekin lotzen den kultura bizitzen, eta fenotipo horiek partekatzen dituen giza-taldearekin lotura edo harremana galtzen du ere. Ondorioz, bi kulturak integratu beharko ditu; neurri batean bere fenotipoak partekatzen dituzten pertsonekin identifikatu beharko da eta, aldi berean, hezi den adopziozko kulturaren balore eta kidetasunak mantendu beharko ditu (Mirabent, 2014). Gainera, gizarteak duen eragina kontuan hartu beharra dago, bere fenotipoak partekatzen ez dituen gizarte batean bizitzeak inplikazio emozional eta sozialak baititu: adopzioa ulertzeko modu sozialaren eta kultura- eta arraza-harrerako gizarte-giroaren arabera identitate positibo eta osatu baten eraikuntza erraztu edo zaildu dezakeen begirada osatuko da (Berastegui eta Gomez, 2007; Mirabent, 2014).

Begiradaren auziak berebiziko garrantzia du identitatearen eraikuntzan. Esan bezala, identitatearen iturri nagusietako bat pertsona baten gaineko besteen begirada litzateke, pertsona horren jatorriari buruzko datuek baldintzatuta dagoena. Begirada horien artean, familiarena da esanguratsuena: “lehen-mailako” markajea eskaintzen du, begiratua izaten ari den pertsonaren bizitza osorako balore erreferentzialak ezarriz (Berastegui eta Gomez, 2007; Loizaga, 2013). Adoptatuek haien familiaren (zuzenekoa eta zeharkakoa) markaje positiboaren beharra dute, haiengatik estimatuak eta familian barneratuak sentitzeko beharra

dute. Izan ere, horren bitartez, *konponketa* prozesua garatzen da: adopziozko familiek, *zaintza eta pertenezia loturekin*, familia biologikoez utzitako gabezia *konpontzen* dute egunetik egunera. Adoptatuei familia biologikoez eman ez zieten edo desegoki burutu zuten zaintza, maitasuna eta estimulazio positiboa eskaintzen dizkiete (Loizaga, 2013). Begirada edo markajearen auziak, beraz, zuzeneko lotura du atxikimendu edo loturen alderdiarekin.

Atxikimenduaren teoriaren arabera, zaintzaile nagusiekin izandako lehen esperientziek autokontzeptua, autoestimua edo identitatea izango dena markatzen dute: esperientzia horiek gabeziazkoak, zabarkeriazkoak edo oldarkorrak direnean, norbere burua lantzeko ereduak negatiboak izango dira, nahiz eta definitiboki ez izan. Familiarekin harreman irekia, segurua eta positiboa bada, aldiz, adoptatuak bere jatorriari buruzko informazio gabeziari hobeto egin diezaioke aurre: falta hori betetzeko eta horrek eragindako frustrazioaren eraginez sortutako fantasia eta distortsioak alboratu ditzake, gertatutakoaren errua ginetik kendu eta erreferente biologikoen galeraren dolua gainditu (Berastegui eta Gomez, 2007). Gainera, arraza arteko adopzioetan, adoptatuaren fenotipoek adopziozko familiarekin identifikatzeko jartzen dituzten traben aurrean lotura emozional eta atxikimendu positiboak identifikazioaren berebiziko osagarri bihurtzen dira: adoptatuek familiakideen antza hartzen dute loturen indarren ondorioz, haurtzarotik maite dituzten horiekin identifikatzera, haiek transmititutakoa barneratzera eta haiek bezalakoak izatera bultzatzen baitituzte (Mirabent, 2014). Familiarekin ematen diren lotura harremanek identitatean positiboki ala negatiboki eragin dezakete (Loizaga, 2013). Gauzak horrela, pertenezia eta diferentziaren arteko tentsio potentzialaren ebazpena berebizikoa da harreman familiarraren ezarpenean eta, hortaz, adoptatuaren identitatearen garapenean. Familiarekin gertatzen dena parekideen taldeetara edota harrerako giza-talde kulturalera estrapolatu daiteke (Berastegui eta Gomez, 2007).

1. Taula. Adopzioa bizitzeko moduak: diferentzia eta pertenezia sentimenduak.

| | | Adopziozko familiarekiko ezberdinak sentitzen dira | |
|---|-----|--|------------|
| | | EZ | BAI |
| Adopziozko familiarekiko pertenezia sentimendua | BAI | Integratuak | Bereiztuak |
| | EZ | — | Alientuak |

Iturria: norberak egina. Datuak: Berastegui eta Gomez, 2007: 32

Aipatutako elementu guztiak laburtzearren, Mirabent-ek (2014) nerabe adoptatuen identitatearen eraikuntzan eragiten duten faktore zehatz batzuen zerrendapenez baliatu gaitzke:

1. Lehenik eta behin, abandonuaren eta egin zitezkeen beste delu batzuen lanketa, Nancy Newtonek (2010) lehen zauriaz, haurtzaroan zehar izandako galera ezberdinez eta barne indarraz hitz egiten duenean aipatu bezala.
2. Gabezien eta arduragabekeriaren pisua eta ondorioak psikean, garapen emozionalean eta buruko funtzioen garapenean (sinbolizatzeko, emozioak, hizkuntza, pentsamendu abstraktua mentalizatzeko gaitasuna).
3. Barne-esperientzia eta genetika eta arraza-desberdintasunen integrazioa, norberaren, familiaren, eskolaren eta gizartearen barruan.
4. Adopzio-familiaren eta familia biologikoaren arteko barne- eta kanpo-identifikazioen gurutzaketa.

(Mirabent, 2014: 3)

Ikusitako guztiak argi adierazten digu adoptatuen identitatearen eraikuntza aztertzeak garrantzi handia duela haien adopzioak prozesu horretarako suposatzen dituen erronkak gainditu nahi badira. Hain zuzen ere, horren bitartez identitatearen eraikuntzan eragiten duten elementuak azaleratu eta ezagutu daitezke, eta Bowlby-k (1983, Mirabent-ek aipatua, 2014: 31) dioenez, “tristurari eta doluei hitzak jartzeak pentsamendua eta sentimenduak integrazten ditu”. Kalte horiek ulertzeko eta konpontzeko gaitasuna erabakigarria izango da adoptatuen bilakaeran (Mirabent, 2014). Ez hori bakarrik, autokontzeptua indar soziala da, eta informazioa prozesatzeko balio duen heinean, testuinguru sozialak birkonfiguratu eta *self*-arentzako emaitza positiboak sustatu ditzake (Oyserman, 2001). Are gehiago, “autokontzeptua lanean ari dela ondorioztatzen da emaitzak moderatzen ditunean; gazteen artean, arraza-etnia gutxiengoaren identitate positiboak errendimendu akademikoa gutxitzeko arriskuan bitartekari lanak egiten ditu (Oyserman & Harrison, 1997, Oyserman-ek aipatuta, 2001: 502), eta “nortasun bikoitzeko gazte hauentzat, autokontzeptuak "nor naiz ni?". "non dagokiot?", eta "nola egokitu naiteke?" galderei ematen dizkien erantzunek motibazioa areagotu eta iraunkortasuna errazten dute beren kideek jasaten duten estereotipo-mehatxuaren aldean” (Steele, 1997, Oyserman-ek aipatuta, 2001: 502). Guzti honengatik, lan honetan Euskal Herriko adoptatuen identitate narratibak ezagutu nahi izan dira, Txinak eta Gipuzkoak izandako pisua dela eta zehazki jatorri eta helmuga horietako adoptatuengan zentratuz.

3. METODOLOGIA

3.1. Teknika metodologikoak

Ikerketa honek, aipatu bezala, txinatar jatorridun neska adoptatuen nortasuna nola gorpuzten den aztertzea bilatzen du, Gizarte Psikologiari helduta. Identitatea narratiba gisa ulertuta, helburua haurtzarotik gaztaroraino hura eraikitzeko erabili diren elementuak azaleratzea da, amankomunekoak eta ezberdintasun nagusiak identifikatzeko. Horretarako, ikuskera hermeneutikoan eta Diskurtsoaren Analisi Kritikoan (DAK) (Van Dijk, 2015) oinarritutako metodologia kualitatiboa erabili da, eta informazioa eskuratzeko sakoneko bi talde elkarrizketa eta banakako elkarrizketa bat antolatu dira, pertsonalak, fokatuak eta erdi-zuzenduak. Elkarrizketa horiek Kenneth Gergen-en (1996) konstrukzionismo sozialaren interpretazio-esparruan oinarrituta antolatu dira: ikerlariak rol hori betetzeaz gain elkarrizketatuen rola hartu du ere, guztien artean bizi-esperientziak partekatzeko, eta adopzioak Euskal Herriko testuinguru sozio-politiko berezian hazitakoengan izandako eraginari buruz hausnartzeko espazio seguru bat sortzearen. Horrela, ikerlari eta ikertuaren arteko harremanari beste zentzu bat ematen zaio, bataren bilaketa aktibora eta bestearen harrera eta transmisio pasibora mugatzen ez dena, eta aztertutako biztanleriaren bizi-esanahi eta praktika berriak garatu daitezke (Gergen, 1996, Stiths eta Rojas-ek aipatuta, 2021) Elkarrizketen edukiaren analisia egin ahal izateko, aurretik adopzioa eta identitatearen kontzeptuak, baita haien lotura ere, aztertu dira berrikuspen bibliografiko baten bitartez.

Lan hau euskaraz egitea bilatu den arren, lehenengo talde elkarrizketan erabili da hizkuntza hori soilik, beste bi solasaldiak gazteleraz eginez partaideen erosotasunerako. Erosotasun hori eta partaideen pribatutasuna bermatzeko lehen elkarrizketa Ume Alaia elkartearen areto batean egin da, beste biak *online* eginez. Horren aurretik ikerketa aurkeztu eta sinatutako baimen informatua eskuratu da. Kontuan hartu beharra dago elkarrizketak ikerketa giro batean egin direla eta, hortaz, lortutako informazioa giro horrek baldintzatutakoa dela. Izan ere, “informazioaren eskuragarritasunari eragiten dion memoriaren berreskurapenaren ezaugarri bat pertsona gogoratzera bultzatzen duen galdera da” (Libby eta Eibach, 2007: 84). Hau da, galdera formulatzeko eraren arabera (Libby eta Eibach, 2007), galderak idazteko erabilitako letra motaren arabera (Norenzayan, Schwarz eta Rothman, 1996, Oyserman-ek aipatuta, 2001), eta testuinguruaren horrelako zertzelada sutilen arabera *self*-aren alderdi bat ala beste azaleratuko da (Oyserman, 2001).

3.2. Lagina eta kontaktazioa

Lehenengo talde elkarrizketaren partaideak hautatzeko honako irizpideak erabili dira: 1) informazioa ikerlari-elkarrizketatuaren esperientziekin era esanguratsuan alderatu ahal izateko, jatorri (Txina), helmuga (Donostialdea) eta genero (emakumeak) berdineko adoptatuak izatea, 2) Gipuzkoara 2000 eta 2005 urteen artean iritsi izana. Urte tarte horri hiru arrazoirengatik eman zaio garrantzia: ikerlariaren antzeko adina eta, hortaz, partaideen konfiantza eta erosotasuna bermatzen du; adopzioaren gailurra izan zenez lagin handiagoa eskaintzen du; identitatearen garapenerako adin kritikoa nerabezaroa izanik (Mirabent, 2014), gaztaroan dauden adoptatuak hari buruzko informazio garatuagoa eskaini dezakete. Ikerketa aberatsagoa egitearren, bigarren talde elkarrizketa bat antolatu da, bigarren irizpidea mantenduz eta lehenengoa eraldatuz: 1) ikerlari-elkarrizketatua bezalako EHUKo ikasle adoptatuak bilatu dira, kasu honetan jatorri, helmuga eta genero irekiarekin. Azkenik, adopzioan aditua den psikologo batekin (P1) banakako elkarrizketa bat antolatu da, aurreko bi solasaldietan eskuratutako informazioa ikuspegi profesional batekin uztartu ahal izateko.

Partaideekin harremanetan jartzeko zenbait metodo erabili dira: batetik, Ume Alaia Gipuzkoa eta Agintzari adopzio-familien elkartearen laguntza jaso da. Horrekin batera, sare-sozialen (Instagram) bitartez egindako deialdi batetik jasotako partaidegaien artean aipatutako baldintzak betetzen zituztenak hautatu dira, komenigarritasun irizpideari helduta. Deialdi horrek nolabaiteko elur-bola efektua eragin du, klasekide baten bitartez partaide bat lortu, partaide horrek lagun bat (ikerlariaren haurtzaroko ezaguna dena ere) parte hartzera animatu eta ikerlariaren bi ikaskide ohi aurkeztu baitira.

2. Taula. Adoptatuen profilen zehaztapena.

| Kodea | Generoa | Jatorria | Bizilekua | Adopzio adina |
|-------|----------|----------|-------------------|------------------|
| A1 | Emakumea | Txina | Donostia | 11 hilabete |
| A2 | Emakumea | Txina | Donostia | 14 hilabete |
| A3 | Emakumea | Txina | San Juan; Bilbao | 10 hilabete |
| A4 | Emakumea | Txina | Beasain; Donostia | 13 hilabete |
| A5 | Emakumea | Txina | Getxo | 13/14 hilabete |
| A6 | Gizona | Errusia | Lemoa; Bilbao | Bi urte eta erdi |

Iturria: norberak egina.

3.3. Informazioaren analisirako metodoa

Elkarrizketa guztiak grabatuak izan dira, ondoren bertatik eskuratutako informazioaren analisi narratiboa edo diskurtso analisia egin ahal izateko. Izan ere, White eta Epston-ek (1980/1993, Gómez eta Rojas-ek aipatuta, 2021) dioenez, pertsonen bizitzak nahita eraiki eta egituratutako narrazioetan oinarritzen dira haien antolamendurako, eta narrazio horiek testuinguru sozial, kultural eta familiarretan eraikitako sinismenak defendatzen dituzte, zehazki sujetua osatu eta identifikatzen dituztenak. Hortaz, identitate soziala aztertu nahi bada, hau da, pertsona izatearen esperientzia berezia eta hori ekoizten duten gizarteak landutako ikusmoldeak ezagutu nahi badira, diskurtsoen analisitik abiatu beharra dago (Iñiguez, 2001).

Identitatearen analisiak dekonstrukzioa izan behar du, eta aztertutako identitateen emantzipazioa ahalbidetzeko balio behar du (Cabruja, 1998, Iñiguez-ek aipatua, 2001). Izan ere, kokapen sozial guztiak adierazleak dira, guztiek ekoizten dituzte diskurtsoak, baina haien artean baliabideen eta boterearen banaketa disparekoa da (Iñiguez, 2001). Gauzak horrela, adoptatuen identitate narratiben azterketak haien identitate sozialaren garapenean pairatu ditzaketen erronka, zailtasun eta botere banaketa disparekoei aurre egiteko baliagarria izan behar du. Gergen-en (1996, Gómez eta Rojas-ek aipatuta, 2021) konstrukzionismoari jarraiki, ikerketa praktikak harremantze eredu batetik abiatu eta bizitza kulturalerako eredu berriak sustatu behar dituzte.

Analisi narratiboak giza ekintzen intenzionalitatea (zer eta zergatik?) eta horien testuingurua (non eta noiz?) bilatzen du. Narrazioetan esandako “egia” testuinguruaren araberakoa da beti, eta aldrebes, testuinguru orokorra (kultura), daniar, frantses edo, lan honen kasuan, euskaldun “tipiko” bihurtzeko gure adimena baldintzatzen duena, kontatuko eta entzundako istorioen araberakoa da (Rutten eta Soetaert, 2012). Identitate narratibek (biografiak) istorioen elementu berdinak dituzte: hasiera, korapiloa (istorioak antolatzen dituzten topikoak), ekintza eta bukaera (Bruner, 2005, Rutten eta Soetaert-ek aipatuta, 2012). Analisi hau tematikoa da, diskurtsoaren topikoetan edo makroegitura semantikoetan (Van Dijk, 2015) zentratuta, identitateari zentzua ematen dioten elementu diskurtsiboak bilatzeko (testuingurua, kidetzak, antagonismoak...). Hain zuzen, analisi tematikoa “narratibaren edukian eta gizarte honetan eskuragarri dauden baliabide linguistiko zein kulturalekin duen harremanean” (Bernasconi, 2011: 22, Gómez eta Rojas-ek aipatuta, 2021) zentratzen da.

4. NARRATIBEN ANALISI TEMATIKOA

Elkarrizketak zintzoki irakurri ondoren, oroitzapen, bizipen, ideei eta sentimenduak esanahien arabera kodifikatu dira. Horrela, aztertutako adoptatuen identitate narratibak eraiki, antolatu eta adopzioa integratzeko balio izan duten honako diskurtso gaiak bereizi dira: 1) adoptatu izaeraren deskubrimendua eta integrazioa, 2) adopzio prozesuaren ezagutza, 3) jatorriaren eta abandonuaren auzia, 4) lehen oroitzapenak, 5) kulturen integrazioa, 6) arrazaren integrazioa eta esanahia. Bakoitzean “topiko” anitzak aurki ditzakegu.

4.1. Adoptatu izaeraren deskubrimendua eta integrazioa

Esan gabe doa norbaitek adoptatu gisa identitate narratiba bat eraiki dezan beharrezkoa dela lehenik eta behin adoptatuak bere identitatearen alderdi edo itxura hori ezaguna izatea. Izaera horren deskubrimendua edo horrekiko kontzientziazioa haren bizi-narratibaren lehenengotariko topikoa edo kudeatu beharreko arazoa izango litzateke, “un agujero narrativo descomunal”.

P1: “Y es en torno a los cinco o seis años, cuando descubren que la forma en que ellos forman parte de una familia que no tiene que ver con la de los demás. Los demás tienen unos padres y unas madres biológicas con las que conviven y que tú tienes unos padres adoptivos que no son con los con los que naciste, con lo cual el ¿por qué no están los otros y qué pasó? Esto es algo que se convierte en un agujero narrativo descomunal, en una ausencia, en un vacío.”

Adierazi bezala, narrazioak testuinguru batean (kultura eta gizartea) ematen dira beti. Bizi-narrazioak testuinguru sozial, kultural eta familiarretan eraikitako sinismenetan oinarritzen dira, eta testuinguru hori, kultura hori, truke-sistema *konbentzionalizatuek* mantentzen dute bereziki, hala nola informazioa edo istorioak trukatzeko sistemek (Iñiguez, 2001; Rutten eta Soetaert, 2012). Testuinguruaren, alegia kulturaren eginkizuna narratibei hasiera ematea litzateke, *hasierako estatu edo egoera kanonikoa* ezarriz. Hau da, mundu batean ohikoa eta konbentzionala izango dena ezarriz (Bruner, 2005, Rutten eta Soetaert-ek aipatuta, 2012). Kasu honetan, Euskal Herriko kultura eta testuinguru sozio-politikoak espainiar estatuan eta mundu-mailan hegemonikoa den diskurtsoarekin bat egiten du: familia bateko kideen arteko harreman konbentzionalak lotura biologikoak dira. Familiakoa eta bertokoa izateko harreman biologikoa espero da, hori da *egoera kanonikoa*.

Adoptatuak haien egoera ez-ohikoa delaz konturatzen dira, haien familiak ez duela besteenarekin zerikusirik, “una familia que no tiene que ver con la de los demás”. Familiarekin duten harremana, adoptatua izatea eta, hortaz, lotura biologikorik ez izatea, Bruner-ek (2005, Rutten eta Soetaert-ek aipatuta, 2012) *engine* deitzen duena izango litzateke, narratiba antolatzekeo topiko bat, “gauzen egoera jakin hori galdegiten edo bortxatzen duen zerbait, eta “berez nabaria den ohikotasuna” gutxien duen hori” (Bruner, 2005: 57, Rutten eta Soetaert-ek aipatuta, 2012). Izan ere, adopzioak askotan adoptatuek haien familiekin dituzten ahaidetasun harremanak eta, zeharka bada ere, bertokoa izateko eskubidea, gizarteko beste edozein kide izatea zalantzan jartzen duten galderak edo jarrerak azaleratzen ditu, askotan adoptatu izaeraren kontzientzia hartzerako garaian agertzen direnak:

A2: “Baina esan nahi dut, jendeak esaten dizu, bai, adoptatua zara tal... Eta modu batean jokatzeko dute.”

A1: “Egia da txikitan igual ikastolan batez ere ba jendeak egiten zizula komentarioren bat, esan duzunagatik, adopzioak azkenean hasiera batean ematen du konnotazio txarra dakala ez? Hitz horrek. Gogoratzen naiz txikitan igual klaseko batek esata, "baino ordun zer da? Gurasoek ez zizuten nahi?" Ta klaro, ni geratzen nintzen pixkat deskuadrada. Etxera itzultzen nintzen eta igual komentario horrek ez dakit molestatzen zidan, baina nire buruan ez nuen oso ondo ulertzen. Azkenean, niretzako, ze gurasoek? Nire gurasoak hemengo gurasoak dira, horiek dira guraso bakarrak”.

Adoptatua izateak eta lotura biologikoen gabeziak antagonismo baten sorrera dakar, konbentzionala (“guraso biologikoak”) denaren eta ez-ohikoa (“adopziozko gurasoak”) denaren artekoa. Diskurtso hori legitimatzeko, *egoera kanonikoa* lotura biologikoetan oinarritutako familia bat dela legitimatzeko, adopzioari konnotazio negatiboa ematen zaio, eta adoptatua bere guraso legitimoek ukatu duten norbait bezala ikusi ohi da. “Bestearen” (adoptatua) aurkezpen negatiboa eta “gu” horren (biologikoa) aurkezpen positiboa ematen da (Poblete, 2011, Pérez-ek aipatuta, 2020), diskurtso hegemonikoen talde arteko polarizazio estrategia (Van Dijk, 2015), “benetako” bezalako terminoak bereizketa egiteko erabiliz:

A1: “Ez nengoen haserre, ez nengoen triste, zen pixkat konfusioa bezala, "ez dut ulertzen galdera, benetako gurasoak, ze benetako gurasoak, nire gurasoak ba zuk ikusten dituzunak dira". Ez dakit. Baina bai, nik uste, batez ere ia igual hitz egiten hasten garenean eta LHn

galdetu zidatenean, ba ni geratzen nintzen pixkatxo bat como, ba ez nuen ulertzen eta igual, ez dakit inflexio puntua, berez azkenean normalizatuta neukanez ba ohitzen zara galdera horiekin. Egia da askotan ez nekiela zer erantzun. Baino ez ezergatik. "Nire benetako gurasoak hauek dira".”

Haien familiako kidetza ezbaian jarri izan denean, batez ere adoptatuak direla deskubritu berri dutenen eskutik, elkarrizketatuek adopziozko gurasoak haien benetako gurasotzat aldarrikatu dituzte, “nire benetako gurasoak hauek dira” bezalako baieztapenekin. Haien kontra erabilitako hitza, “benetako”, bereganatu eta haien familien kide izateko bidea, odolezkoa ordez *zaintza eta pertenezia loturen* (Loizaga, 2013) bidezkoa, defendatzeko erabili dute. Diskurtsoaren Analisi Kritikoak (DAK) defendatu bezala, lexiko hori haien alde erabiltzeak garrantzi handia du, iritziak moldatu baititzake (Van Dijk, 2015), ilegitimizazio hori kontraargudiatuz bai besteen eredu mentaletan bai adoptatuen beraien ereduetan ere. Gainera, erantzun hori segurtasunez eman ahal izateak adopziozko gurasoek *konponketa lanak* (Loizaga, 2013) egoki bideratu dituztela esan nahi du, familian adopzio bidezko ahaidetasunari buruz nahikoa hitz egin eta landu dutelaren seinale baita:

A1: “Ez da inoiz sekretu bat izan. Horregatik uste dut horrek asko lagundu zidala gero. Ez da inoiz zerbait txarra bezela ikusi. Kontrakoa. Gure familia holakoa da eta oso ondo. Nik inoiz ez dut pentsamendu txarririk izan, justu kontrakoa, ze ondo no?”

A3: “Niretzat ere oso positibo izan da. (...) Gero ere amak eraman nau asko Ume Alaiaren gauzetara, orduan ere apuntatzen nintzen beste pertsonekin adoptatuak zirela eta nire egoera berdintsuan egon iada.”

Kontuan hartzekoa da oraindik ere imaginario sozialean lotura biologikoak *kanoniko* gisa hartzeko joera dagoen arren, bestelako loturen ikusgarritasuna eta legitimazioa gero eta handiagoa dela, eta adituek (adib. Loizaga, 2013) harremanek sortutako ahaidetasuna odolak sortutakoa baino garrantzitsuagoa dela diote. Gainera, elkarrizketatuen adopzioaren deskubrimendua adopzioarekiko isiltasuna eta estigmatizazioa txikituz doan testuinguru batean kokatu da, non estatu eta mundu-mailan adoptatu izaera ezagutzearen garrantzia eta eskubide izaera aitortu den (Berastegui eta Gomez, 2007; Martin, 2020). Horrela, elkarrizketatuek ez dute “pelikuletako bezalako” deskubrimendu bortitzik izan, betidanik integratu dute haien adoptatu izaera, familiek gai hori naturaltasunez eraman baitute.

A1: “Bai, nire etxean adibidez naturalitate guztiarekin eman da.”

A2: “Ba nire etxean ere bai bastante normal. (...) Nire inguruan ez dut arazorik eduki, ez dut eduki prozesu hori: bueno, *Leire* adoptatua da, eduki behar dezute ez dakit zer... Izan da normal.”

A3: “Berez adoptatu hitzak ia daukala abandonatua izan garela aurretik, baina gero eramanda oso natural eta txikitatik, ez dago momentu bat de, "benga eseri gaitezen eta esango dizut adoptatua zarela" pelikuletan bezala. Izan da prozesu osoa horretan.”

Adoptatu izaeraren topikoa eta horrek dakarrena haien identitate-narratiban ahalik eta hobekien integratzen dutenak deskubrimendua, A3k deskribatu bezala, “prozesu oso” bat gisa garatzen duten horiek dira. Horrela, A1 eta A3k adoptatu izaera positiboki integratuen duten elkarrizketatuak dira, haien identitatearen alderdi horri buruz hitz egiterakoan erantzun garatuenak emateko gai direnak izanik, haien familiekin asko landu duten gai bat izan baita.

P1: “Y la adopción funciona mejor cuando hay revelación, cuando hay transparencia, cuando hay acompañamiento, cuando además el acompañamiento no sólo es te lo digo un día y se acabó, sino que a lo largo de tu vida te voy acompañando de las diferentes etapas y en los diferentes significados que tienen.”

A1 eta A3ren kontrara, gaia familiekin gutxiago landu dutenek erantzun nahasiagoak eman dituzte. Norberari buruzko irudiaren eta oroimenaren arteko harremanari jarraiki (Libby eta Eibach, 2007), identitatearen alderdi horren lanketa urriagatik eta, hortaz, presentzia txikiagatik horri buruz gogoratzen dutena gutxitzen da.

A5: “Yo la verdad que, y a lo largo de la vida, mucha gente me ha preguntado, en plan, a ver si me lo dijeron mis padres, si me enteré yo, y no sé qué... y la verdad es que no tengo ni idea, es que no me acuerdo. No tengo el recuerdo muy bien de ese momento que dices tú como de decir, wow, así como, no sé, nunca. O sea, siempre he sido consciente y no sé si es porque muy de pequeña mis padres ya me lo dijeron y pues he crecido sabiéndolo, o si no me lo dijeron y simplemente yo lo sabía, es que no lo sé. Y como mis padres tampoco me han, no sé, no me han dicho nada de eso, porque tampoco preguntaba. No sé.”

4.2. Adopzio prozesuaren ezagutza

Ikusi berri dugun bezala, adoptatu izaera deskubritu eta ezagutzea adoptatu gisa identitate narratiba bat eraikitzeke lehen pausua litzateke. Identitate integratu bat eraikitzeke adopziozko guraso eta hurbileko senideen laguntzaren bitartez deskubrimendu hori prozesu jarraitu eta natural batean bihurtzea berebizikoa denez, norbera adoptatua dela jakitearekin ez da nahikoa. Adoptatu izaeraz kontziente izateak horri buruzko informazio gehiagoren beharra dakar, eta Berastegui eta Gomez-ek (2007) diotenez, informazio horren eskuraketa berebizikoa da, horren ezkutaketak ondorio emozional, psikologiko eta, zenbait kasutan, psikopatologikoak izan baititzake.

P1: “El criterio de salud mental más importante es el de apertura al hecho adoptivo, es decir, toda la transparencia y todo lo que sea el dar palabra, poner texto, narración a lo acontecido, todo eso es, son bueno, son elementos positivos y que indican desarrollo positivo de las personas adoptadas.”

Ezagutu beharreko informazioaren artean adopzio prozesua dago, nolabaiteko jatorria. Hari buruz, elkarrizketatu guztiek gertaera osoaren nondik norakoak kontatzeko gai direla adierazi dute, garapen on baten seinale. Gurasoen eskutik ezagututa, prozesua kontakizun edo istorioen elementuekin (Bruner, 2005, Rutten eta Soetaert-ek aipatuta, 2012) irudikatzen dute: inplikaturako aktoreak (adopziozko gurasoak, erakundeak, elkarteak...), hasierako egoera (haurrak izan nahi eta ez dituen familia bat), erronkak edo istorioaren korapiloak (haurdun geratzeko arazoak edo guraso bihurtzeko beste motatako zailtasunak...), helburua lortu eta erronkei aurre egiteko ekintza (adoptatzea erabaki, prozesua martxan jarzea, joaneko bidaia...) eta bukaera (etorrerako bidaia, adopzioaren burutzea, haurraren iritsiera...).

A5: “¿Cómo decidisteis adoptar? Y me contó toda la historia que, bueno, mi ama había tenido muchos problemas con diecisiete años, porque una apendicitis se inflamó (...) y entonces cuando intentaron tener hijos mis padres, biológicos, pues se quedaba embarazada pero o los perdía, o eran de riesgo (...). Era muy difícil y dijo, pues vamos a adoptar. Y me contó que para coger a mi hermana en el noventa y siete fue a la Diputación, preguntó, tal... (...) se cogió un rebote con los de la la Diputación y luego me contó que llamó a una asociación que ahora mismo no te se decir el nombre, (...) y le dieron un informe muy detallado de cómo se podía adoptar y tal, y le ayudaron un montón. (...) Y nada, y me lo contó todo. Cómo fue, los plazos, los meses, tal, cuando llegaron allí...”.

A6: “En quinto de Primaria sí que nos paramos a hablar (...), yo creo que el problema de mi ama también era ese, que le costaba tener hijos y así. Entonces pues como que intentaron de ver otras posibilidades, adopción y así, y me contaron eso, pues que hicieron dos viajes. El primero, que fueron y se informaron ahí y pues eso, que les enseñaron, les dieron la opción de adoptarme a mí. Y bueno, ellos ya tenían la intención de que querían adoptar a dos, a un chico y una chica, y les dieron ya la opción. Pues eso, de a mí y a mi hermana, tampoco somos de sangre, pero eso, y nos adoptaron a los dos.”

Adopzio prozesuaren ezagutzak adoptatu izaeraz kontziente izateak dakartzan galderei erantzuteko balio du, artean adopzioaren zergatiari buruzko galderei: zergatik bilatu ninduten? zein izan zen ni adoptatzeko benetako motibazioa? (Berastegui eta Gomez, 2007; Loizaga, 2013) Elkarrizketatu guztien kasuan, adopzioaren zergatia adopziozko familietatik abiatzen da nagusiki, haien gurasotasun nahietatik eta A5 eta A6-ren kasuan, zehazki haurdunaldian pairatutako zailtasunengatik. Adopzioaren zioaz gain, kontakizunean lehen topaketa ezagutzera ematen da, “nolakoa nintzen ikusi ninduten lehenengo aldia?” (Berastegui eta Gomez, 2007) bezalako jakin-minak asetzeko balio duena, besteak beste:

A4: “(...) ze nik nahiko argi neukan prozesu guztia, non itxoin zuten, non zeuden umeak, ematerakoan que sólo daba patadas, baino gero ondo. Guztia, prozesu guztia kontatu didate así que naturaltasunarekin.”

Istorio ororen antzera, inplikaturakoen sentimenduak ezagutzera ematen dira ere, “zer sentitu zuten nirekin bildu zirenean?”, “zergatik ni?” (Berastegui eta Gomez, 2007) bezalako galderei erantzuteko balio dutenak.

A4: “Niri adibidez bai prozesu guztia kontatu zidaten. Azkenean nire ahizpa lehenago iritsi zen, eta kontatzen zidaten nire ahizpa nola zegoen, guraosei bidaltzen diete argazki bat lehenengo, tipo "hau da zuen umea", ba haien sentimenduak, ze musika entzuten zuten itxaron bitartean, eta horrela. Bai ahalegina egin dute nik uste ikusten nire aldetik ba maitatua nintzela ikusi baino lehen.”

A1: “Niri asko gustatu zait esan dezuna, hori, gurasoek beti azpimarratzen dutela ba argazkia bidaltzen dutenean, ia ezagutu baino lehen maitatzen duzula.”

“Ikusia/ezagutua izan baino lehen maitatua nintzela”: baieztapen hori eta gurasoengandik maitasun sentimendua jasotzea adoptatuentzako ezinbestekoa da, lanaren hasieran aipatzen zenez identitate positibo bat eraikitzeko familiarekin lotura eta *markaje* positiboak behar baitituzte (Loizaga, 2013). Adopzio prozesua kontatzeko moduak adoptatuei beren etorrera esperoa eta maitea zela adierazten die, eta familian haien presentzia justifikatu. Gainera, elkarrizketatu guztiek bat egiten dute haien etorrera familia osoarentzat eta inguruko guztientzat gauza on bat bezala kontatu izan zaielakoan, poza ekarri duen zerbait.

A4: “Bai eta ez bakarrik gurasoak, ere kontatu didate nola esan ziotenean nire aiton-amonei beraien erreakzioa, super pozik jarri zirela, eta gero ere bai aireportuan.”

A1: “Bai nire gurasoek baita, hori familia, kuadrillakoak baita, eta, hola, azkenean denontzako, inguru osorako dela gauza on bat.”

Aipatzekoa da adopzio prozesuaren kontakizunak familia biologikoaren ondareak (kontxesioa, jaiotza, guraso biologikoak...) utzitako hutsuneari aurre egiteko balio duela. Metafora eta konparaketen bitartez, hala nola prozesua eta sentimenduak haurdunaldi batekin identifikatuz, ulertu eta kontatzeko konplexuagoa izan daitekeen prozesua zehatzago egin (Van Dijk, 2015) eta *kanonikoa* den jatorri biologikoaren aurrean adopzioa legitimatzen dute, haien identitate-narratiban integratzeko.

A1: “(...) batez ere kanpotik ulertzen ez dutenentzako, pentsatzen det ba jo, berdina, zure ama haurdun dagoenean ezagutu baino lehenago pila bat maitatzen zaitu. Ba beraientzako berdina zen, baina eduki ordeztu (...). Eta hori oso garrantzitsua da, batez ere, (...) nerabezaroan, igual liatuta zaude, baina, gero azkenean familian oso maitatua izatea nik uste dut garrantzitsua dela ba independentementen adoptatua izan edo ez. Nik uste dut esan dezutenagatik gure kasuetan familian oso maitatuak izan garela, orduan azkenean horrek ere asko laguntzen du.”

Prozesuaren integrazio hobea izateko, kontakizunaz eta bertan erabili daitezkeen baliabide linguistikoez gain narrazioari laguntzeko bestelako baliabideak erabiltzearen garrantzia gero eta ageriagoa da (Berastegui eta Gomez, 2007).

P1: “(...) el desarrollo de una buena identidad está asociado al (...) hablarlo, comentarlo con todo tipo de recursos, cuando se es niño con cuentos, cuando se es adolescente con documentos y ya con unas explicaciones mucho más realistas y más cercanas a la realidad.”

A1, A3 eta A4ren kasuan, dibertsitateari edo adopzioari buruzko ipuinak, hala nola *Txinatik etorritako printzesa*, prozesuari buruzko dokumentazioa eta argazki-albumak bezalako baliabideak uneoro eskuragarri izan dituzte. Horrela, adopzio bidezko jatorria sentimendu eta ikuspegi positiboekin kontatu ahal izan dute, eta xehetasunak gogoratzeko gai izan dira. Baliabide hauei esker haien oroimenaren bitartez zuzenean gogoratu ezin ditzaketen uneak irudikatu (Berastegui eta Gomez, 2007), eta haien adimenean euren istorioa osatu dezakete. Hain zuzen, aipatzeko bitxikeria da A1en albumaren izenburua “A1, nire istorioa” izatea. Dena den, haien familiekin adopzio prozesuaren lanketa oso garatua izan delaren seinale nagusia baliabide hauek “extra” batzuk bezala ikusten dituztela da:

A1: “Baina nik uste dut etxean hain ondo eraman degunez nire ustez, berez hori zela extra bat bezala. Hori esker ez daukagula normalizatuta, aldrebes, gurasoei esker.”

Baliabide horien gabezia izan duten elkarrizketatuen artean horren eragina ere nabari daiteke. A2ren kasuan, prozesua gustoko duen ekintza baten (argazkiak begiratu) bitartez ezagutu eta irudikatu nahi izan duenean, ez du horretarako baliabiderik aurkitu. Aldiz, prozesuan zehar eta lehen topaketan gurasoaren beharrari lehentasuna eman eta adoptatuak etorkizunean izan zitzakeen beharrak ez dira kontuan hartu.

A2: “Niri amak prozesua kontatu zidan zuei bezala (...). Eta gero ipuinak ez.”. “Nik esan nion behin amari "eta argazkirik ez daukazu?" (...) "ez eske ez nituen atera", "eta hori?", (...) "ez eske, zurekin negoen eta ia ez nuen ezer gehio behar".”

Eraginik nabarmenena A5en kasua izan da. Adopzioaren deskubrimenduarekin gertatu bezala, adopzio prozesua gutxi lantzeak horri buruzko oroitzapenetan eta jakintzan negatiboki eragin du, nahasiak edo urriak izanik. Azpimarragarria da A5ek bere adopzio prozesuaren istorioa 2023ko Aste Santuan ezagutu duela adierazi izana, eta gurasoak gaiari buruz hitz egiteko prest dauden arren horri buruzko elkarrizketa gutxi izan dituztela, edo haren familian horri buruz hitz egiten ez dela esan izana. Baliabideren bat izatekotan ere ez du horren esanahiaren azalpenik jasotzearen oroitzapenik.

4.3. Jatorriaren eta abandonuaren auzia

Adoptatua izateak eta adopzio prozesu baten bitartez jatorrizko lekutik beste batera mugitua izanak bi auzi mahaigaineratzen ditu ezinbestean: adoptatua izateko abandonatu behar izan naute, eta orain bizi naizen tokira beste nonbaitetik etorri behar izan naiz. Bi auzi horien lanketa eta dolua beharrezkoak dira adoptatuen identitatearen eraikuntzarako, batez ere nerabezaroan (Mirabent, 2014). Lehenengo talde elkarrizketan, jatorriari buruz hizketan ari ziren bitartean, A4k beste elkarrizketatuei haien abandonuaren istorioa ezagutzen ote zuten galdetu zien. Hartara, guztiek baiezkoa erantzun zuten, istorio batetik bestera zehaztasun-maila aldatzen bazen ere. Orain arte ikusitakoari jarraiki, aurreko bi ataletako topikoak gutxiago landu dituen elkarrizketatuak, A2k, erantzun negatiboagoa eman zuen, abandonuari buruz ez duela inorekin hitz egiten azpimarratuz:

P1: “A ber ni da gai bat ez detena inorekin hitz egiten. Osea uste dut hitz egin dudala pertsona batekin. Ez zait gustatzen hitz egitea.”

Kontrara, aurreko ataletako topikoen lanketa osatuagoa dutenek, A1, A3 eta A4k, abandonuaren auzia gurasoekin landu izan dute ere. Horren bitartez haien abandonua testuinguratu ahal izan dute, honako elementuekin adierazita: Txinako ume bakarraren legea, ume askoren hilketak, mutilen lehentasuna, pobrezia, ilegalitatea eta hezkuntzagabezia. Horrelako testuinguruan oinarrituta, gertaera justifikatzeko auresuposizioak (Van Dijk, 2015) garatu dituzte: A1ek, adopziozko amak kontatutakoagatik, abandonua leku askotan ematen ari ziren umeen hilketatik salbatzeko izan zitekeela kontuan hartu beharra azpimarratzen zuen; A3k, aldiz, zergatia emakumea izateari egotzi izan dio. Oro har, elkarrizketatuek bat egiten zuten abandonua guraso biologikoek haien ongizaterako hartutako erabaki gisa ezarri nahian, auresuposizio hori adopziozko gurasoekin batera garatutakoa izanik:

A1: “Eta hor azkenean esaten zidan amak "(...) leku askotan ume haiek hil egiten zituzten! (...) zure gurasoek nahi zizuten zuri beste aukera bat eman””.

A3: “Nire amak ere esan dit, nire urtebetetze egunean askotan pentsatzen duela nire ama biologikoaz, ze seguramente gogoratuko dela egun hortaz asko, eta dela zeozer eman duena bere nik uste intentzio onakin (...) eman bizitza askoz ere duinagoa.”

A4: “(...) gestu polit bat haien partetik eta oso gogorra”.

DAK-ren arabera, hizlari boteretsuek erabilitako lexikoak hartzaileen ezagutza eta iritziak moldatu ditzake (Van Dijk, 2015). Abandonuaren lanketa honetan adopziozko gurasoek elkarrizketatuen iritzietan utzitako marka argia da (gogoan izan behar da gurasoen begiradak, *markajeak*, narratiben eraikuntzan pisu ikaragarria duela): galerak suposatu eta traumatizatzailea den gertaera (Mirabent, 2014) gurasoek “intentzio onarekin” egindako gestu “polita” bihurtzen da, alabei bizitza “askoz ere duinagoa” emateko “aukera”, haientzako “oso gogorra” izan arren. Horrela, konnotazio negatiboa arindu, ekintzaren errua desagertu, bai adoptatuen gainetik, ukatuak izan direla pentsa dezaketenak, bai guraso biologikoen gainetik, intentzio onez eta min handiz egin baitute, eta esanahi berriak ematen dira.

P1: “Porque al principio lo que vive un niño es que a mí no me querían, por eso me dejaron abandonado. Luego eso tiene que ir evolucionando hacia, bueno, pues donde nació pasaban determinadas cosas: hay leyes de hijo único, hay preferencias patriarcales, con lo cual esto significa que a las niñas se las deja sobre todo si son primeras o segundas. Con lo cual, bueno, pues eso te permite entender un poquito y quitar otros significados, ¿no? Y vas evolucionando en los tipos de significados que va teniendo, con lo cual también cambia tu narrativa y cambia tu sentido de ti mismo. Quién eres y de dónde vienes y cuánto vales y por qué.”

Gurasoen laguntzaz dolua landu izanagatik, solasaldian A1, A3 eta A4k haien abandonuaren eszena arazorik gabe deskribatu zuten, oso antzeko erantzunekin: A1 poliziarren atean kaxatxo batean utzi zuten, zirudienez bere jaiotzaren egunean bertan. Hortaz, A1ek bere urtebetetzea hurbilkera bat zela adierazi zuen barre artean, eta A3k eta A4k susmo berdina partekatu zuten barrezka ere; A3 jaio eta “handik ez dakit zenbat egunetara” eskola batean abandonatu zuten; A4 fabrika baten atean utzi zuten. Adopzioan aditua den psikologoaren (P1) arabera, abandonu mota hori, Txinan ohikoa, kaxako abandonua da (“*forma expósita*”): jendaurrean utzi eta tokiren batetik jasotzen zaie, ez dago haien iraganari buruzko narratibarik.

Informazioa eskuratzeko zailtasunak, iritsiera-adinagatik bertako zuzeneko oroitzapenik izateko ezintasunak eta abandonuaren dolua garatu izanak jatorri biologikoari buruzko jakin-min urria izatea eragin dute elkarrizketatuengan. A2-ren kasuan, bere jaioterria

da, besterik ez. A1, A3 eta A4-ren kasuan, haien jakin-mina jatorri horren, abandonuaren eta umezurtz-etxe batean egon izanaren ondorio biologiko fisiologikoei zuzendu dute.

A4: “Nik alde biologiko fisiologiko horretatik bai, nik uste dut igual etorkizun baten edo zahartzaroan igual eraginak edukiko ditugula lehenengo hilabetetako zaintzak asko kontatzen duelako, elikadura, bai.”

Bigarren talde elkarrizketari dagokionez, beste topikoekin bezala A5ek abandonuari eta jatorriari buruzko komunikazio urria izan du: ez die gurasoei inoiz galdetu, eta ez da gaia inoiz atera. Bere abandonuaren istorioa 2019an Txinara egindako bidai batean ezagutu zuen, eta gurasoengan sumatutako harriduragatik haiek ere informazio horren ezagutzarik ez zutela suposatu zuen. Gauzak horrela, jatorriari buruz izandako zalantzak adoptatua den ahizpa nagusiagoarekin hitz egin izan ditu, eta bere familia biologikoari buruzko eszenatoki hipotetikoetan zentratu dira (“¿Pues tendré hermanos?”), adoptatuengan oso ohikoak diren fantasiengan (Loizaga, 2013), alegia.

Atal honetan aurkeztutako topikoan A6ren kasuak kontrasterik handiena eskaintzen digu. Txinatik etorri ordez haren jatorria Errusia izanik, bere abandonuaren testuinguru guztiz bestelakoa da, eta haren jatorriari buruzko informazioa eskuragarri du. A1, A3 eta A4-ren antzera, gurasoekin abandonuaren dolua landu izan du, gertaera pobreziazko testuinguru batean kokatuz. Baina beste elkarrizketatuek ez bezala, A6-k bere familia biologikoari buruzko datu zehatzak paperetan bilduta ditu, duela hiru urte ezagutu zituenak. Horrela, aita alkoholikoa zuela kontatu ahal izan du, eta lau seme-alaba izanda, amak bera eta bere ahizpa bat umezurtz-etxe batean utzi behar izan zituela. Informazio hori ezagututa, A6-k jatorriari buruz izandako gogoetak bere ahizpak ezagutu nahiari buruzkoak izan dira, jakin-min hori “bitxikeria” gisa ikusita, eta ez behar gisa.

A6: “(...) que el padre siempre era alcohólico y entonces se iba de casa y no aparecía más. Y entonces la madre se quedaba con los hijos (...) me contaron eso, que éramos cuatro, tres chicas y yo, y que de los cuatro a dos, a una hermana mía y a mí, que nos tuvieron que dejar en el orfanato. (...) Y eso sí que me ha producido curiosidad por decir buah, me habría gustado o me gustaría conocer a mis hermanas de ahí, porque no sé, me gusta, me parece como curioso.”

4.4. Lehen oroitzapenak

Behin adopzioaz kontziente izanda eta jatorriaren hutsunea osatuta, lehen oroitzapenen txanda da. Identitatea iragana, oraina eta etorkizunaren arteko jarraipen bat denez (Martin, 2018), lehen oroitzapenek gure narratibari buruzko zenbait aztarna eskaintzen dizkigute: batetik, *self*-ari buruzko zein kulturatan kokatzen garen ikus dezakegu. Gurasoekin lehen oroitzapenei buruz hitz egiteko moduak eta maiztasunak *self*-aren garapenean eta, horrenbestez, esperientzia goiztiarrak gogoratzeko ahalmenean eragiten du, eta elkarrizketa horiek norberatasunari buruzko balore kulturelek baldintzatzen dituzte (Libby eta Eibach, 2007). Elkarrizketatu guztien lehen oroitzapenak antzekoak dira: ikastolan lagunekin jolasten edo korriketan, parkean bihurrikeriak egiten, edota guraso edo lehengusinekin. Bat egiten dute kultura europarrarekin, non haurtzaroari buruz hitz egiteko ohituragatik garaiko esperientziak gogoratzeko errazagoa den, eta oroitzapenak pertsonalak eta norberari buruzkoak diren, baina taldeari garrantzia emanez ere. Bestetik, oroitzapenek eta narratibek elkarri eragiten diotenez, oroitzen dugunak gure narratiban garrantzitsua dena adierazten digu (Libby eta Eibach, 2007). Berriz ere A6 jatorriari buruzko oroitzapenak dituen bakarra da:

A6: “(...) vine con dos años y medio y pues si me acuerdo de cómo estábamos todos, pues muchos niños en un cuarto, (...) en un orfanato y eso sí que me acuerdo.”

Beste elkarrizketatuen kasuan, haien oroitzapenak hemengoak lirateke. Zergatia iritsiera-adinari eta jatorriaren informazio ezari egotzi dieaziokegu, baina bada pisuzko beste arrazoi bat ere: psikologoaren (P1) esanetan, disoziazio-mekanismoa litzateke. Haurtxoak uste baino gehiago konturatzen dira, eta ohiko testuingurutik banatzeak sufrimendua eta mina eragiten die. Adimenak ezin du dena gorde, eta horrelako esperientziak ahazten ditu. Hala ere, umezurtz-etxea gogoratu ez arren, bertako esperientziek, tratatuak eta zainduak izan ziren modua, haien txikitako izaera moldatzen du. Izaera hori (“irribarretsua”, “lasaia”, “lurrikara”, “lotsatia”...), berriz ere, gurasoen kontakizunei esker gogoratzeko gai dira. Azkenik, aipatzekoa da lehen oroitzapenek hemengo bizitzarekin lotura handiagoa dutelaren seinale direla, eta adoptatu izaeraz kontziente izan arren haren hierarkian duen lekua ez dela lehentasunezkoa, batez ere A2-ren kasuan:

A2: “(...) nire lehenengo oroitzapenak dira denak hemendik hasita, nik ez dut kontaktzen atzekoa. Ez ukatu nahi detelako edo holako zeozer. Simplemente ez naiz identifikatzen.”

4.5. Kulturen integrazioa

Esan bezala, lehen oroitzapenei erreparatzen badiegu, elkarrizketatu guztiek hemengo bizitzarekin lotura handiagoa dute. Lotura hori egotea esanguratsua da, adoptatuek identitate osatu bat eraikitzeko jatorriarekin eta helmugarekin loturak behar baitituzte, kultura bi edo gehiagoren integrazioa behar dute (Mirabent, 2014).

Jatorrizko eta adopziozko kulturarekin duten loturaren lehen seinalea izena da, pertsona bati dagokion kulturaren aztarna alegia: hizkuntzaren, ideologiaren, erlijioaren, pertsonaia historikoen, artisten, politikarien, familia-kideen... arabera, haurrari izen bat ala beste jartzen zaio, emaileen mundu sinbolikoaren adierazle. Horrenbestez, izena familia batek familia-kide berriari egindako lehen *markaketa* da. Adoptatuen kasuan, familia biologikoak edo umezurtz-etxeak lehen *markaketa* horren ardura dauka, haurra jatorrizko kulturarekin lotzen duena. Hilabete edo urtetara, adopziozko familiak eta, ondoren, adoptatuak berak lehen izen hori mantendu, ezabatu edo berrantolatu (bigarren izen gisa ezarri) nahi duen erabakitzen du, sakonki hausnartutako erabakia izan behar dena (Loizaga, 2013).

Izenek duten esanahia kontuan hartuta, deigarria da elkarrizketatuen artean horiei buruzko erantzun anitzak jaso izana. Lehenik, esan beharra dago elkarrizketatu guztiek haien jatorrizko izena ezagutzen dutela eta, hortaz, jatorrizko kulturarekin nolabaiteko lotura dutela. Lotura horren presentzia, aldiz, asko aldatzen da elkarrizketatu batetik bestera. Batetik, A1, A2 eta A3-ren kasuan, adopziozko gurasoek izen txinatarra bigarren izen gisa ezartzea erabaki zuten. Horietatik, A3 izen txinatarri lehentasuna eman eta bestea arbuiatzen duen bakarra da. Izan ere, amak txinatar izena mantendu nahi izan zuen, eta hemengo izena aurreko izen hori ahozkatzeko ezjakintasunagatik jarri zion. Bere bi izenen atzeko *intenzionalitate* (Loizaga, 2013) horri izen txinatarrak adopziozko amaren haurtzaroko ezizenarekin duen lotura eta horrekin etorritako oroitzapenei batu behar zaio.

A3: “(...) nik ditut bi izen eta erabiltzen dutena da txinatarra. (...) Gero ere bai hegazkinetik, iritsitako argazkiak ia San Juanera iristen, en plan etxean pankartakin, jartzen zuela pankarta bat "Ongi etorri golondrinas" eta berez nire txinatar izena txineraz dela enara eta nire amari txikitari golondrina deitzen zioten, orduan zen como "ongi etorri enara".”

A1 eta A2-ren kasuan, gurasoek izen txinatarra jarzea Txinak jarritako baldintza zela esan zietela adierazi zuten, eta horregatik izena gordetzea erabaki zutela. Txinatar izenak jatorrizko kulturaren oroigarriak dira, eta batzuetan A1 eta A2-rentzako momentu tentsoak eragin ditu, hala nola DBH-n zerrenda pasatzerakoan. Hala ere, A1 hemengo izenarekin aurkezten den arren, txinatar izena erabiltzeko arazorik ez duela adierazi du, adopzioa landu izanaren ondorio. A2-ren kasuan, azpimarragarria da bere amak esan izana hemengo izena jarri nahi ziola soilik eta, gainera, izen txinatarra mantentzera derrigortua izan zenean, nahi zuen bezala izena osoa jarri ordez zati bat bakarrik mantendu zutela, onartzen ez zuena. A2 izen txinatarra kentzea erabaki duen bakarra da, eta harekiko mespretxua erakusten du:

A2: “(...) txinatar izena kendu nuen, ze ez nuen ezer nahi jakin, ez naiz identifikatzen eta ez dut inoiz erabili eta ez dut inoiz erabiliko.”

Bestalde, A4, A5 eta A6-ren kasuan, gurasoek ez zuten haien jatorrizko izena gorde. A6-ren kasuan, gurasoek izen euskaldun bat jarri nahi izan zioten, eta haren izen errusiarrarekin antza handiena zuena hautatu zuten. Errusiar izena bitxia iruditzen zaion arren, A6-k hemengo izenarekin “oso pozik” dagoela adierazi zuen, bestea legalki integratzeko nahirik gabe. Kontrara, A5-i legalki integratu izana gustatu izan litzaioke, eta bere amak izen txinatarra “oso gustoko” duela esan dion arren, baztertu izanaren zergatia galdetzerakoan ez du erantzun argirik gogoratzen. Oroitzapen nahasiek berriro ere komunikazio falta adierazten dute.

A5: “De hecho, a mi madre le gusta un montón. (...) las amigas que tengo tienen ese segundo nombre y la verdad es que me da envidia. (...) Y sí que les pregunté una vez a mis padres que por qué no quisieron ponernos ese segundo nombre. Y o sea, no, no sé, no sé. No me acuerdo exactamente que me contestaron, (...) como que no le vieron la gracia, supongo. No, sé.”

A3 eta A6-ren kasuak salbuespenak salbuespen, elkarrizketatu guztiek hemengo izenari lehentasuna emateak eta lehen oroitzapenak adopzioaren ondorengoak izateak argi uzten du elkarrizketatuek hemengo kulturarekin lotura handiagoa dutela. Azken finean, adoptatuek ez dute haien etniaren balio-, sinesmen-, ohitura-, talde- eta gizarte-esperientziarik (Mirabent, 2014). A1-ek adierazi bezala, txinatik etorriak dira, baina ez dute bertako komunitateekin harremanik.

A1: “(...) beste herrialdetan normalean txinatarrak daukate, dira Txinako emigranteak eta daukate como komunitatea, eta gu hemen justu gara kontrakoa, Txinatik etorriak baina hemengo kulturarekin eta dena.”

P1: “Es decir, cuando adoptas, la persona hace una inmersión total y completa en tu cultura y lo que se puede hacer a nivel de cultura de origen es muy poca cosa. (...) una familia adoptiva prácticamente no la puede mantener, salvo que tenga contactos muy directos con esa cultura a través de relaciones muy intensas, con lo cual esto prácticamente no se da. Otra cosa es que en la adolescencia o en la edad joven adulto la persona busca un acercamiento con vistas a entender, comprender, querer saber. Pero lo va a hacer prácticamente siendo un turista.”

Izenekin bezala, jatorrizko kulturarekin lehen harremantzea adopziozko gurasoek kudeatzen dute, pasadizozko zerbaiten antzera aipatu dezaketenak, A6-ren kasuan bezala, zeini gurasoek txikitan errusiera perfektuki hitz egiten zekiela esan dioten; edo jatorrizko kulturari buruzko ezagutza eskaini dezakete, jatorrizko janaria probatzera eman, txinatar adoptatuen kasuan ohikoa den bezala jatorrizko hizkuntza ikastera bultzatu, edota jatorrizko herrialdera bidaiatzera lagundu. Jatorrizko kulturarako hurbilketa gurasoek eskuragarri dituzten elementu horiekin egiten da, baina komunitate eta baliabide faltak integrazio sakon bat zailtzen du. Psikologoak esan bezala, jatorrizko kulturara “turista” baten ezagutza-mailatik hurbiltzen da, eta A1, A2, A3 eta A4-k azpimarratu dutenez, harremantzea ez da inoiz inposatua izan, beti hautazkoa den zerbait gisa aurkeztu izan zaie:

A3: “Nirean ere bai saiatu da, osea ditut pila bat liburu de Txina eta bai ezagutza hori. Egia da ez didala inposatu. "Gustatzen zaizu? Edo interesatzen zaizu?". Janari txinatarra niri gustatzen zait asko baino imajinatu, ez bazitzaidan gustatzen badakit ez zidala inposatuko.”

Jatorrizko kulturarekin antzera, adopziozko kulturarako hurbilketa ez da inposaketa gisa ikusten, baina kasu honetan integrazioa sakona da, “cuando adoptas, la persona hace una inmersión total y completa en tu cultura”. Azken finean, elkarrizketatuek adopziozko kultura duen komunitatearekin (tartean familia) harremantzeko aukera dute, euskal giroan hazi eta euskal kultura esperimentatu dute: familia-kide askorekin euskaraz egiteak, ikastera ikastoletara edo eskola publikoetara bidali izanak, euskal tradizioetan beste edozein kide bezala partearazteak... adopziozko kultura naturalki integratzeko balio du.

A3: “Nik uste dut hori, ez zela izan zeozer fortzautu, ba herrian zegola Santo Tomás, ba jantzi behar zela denak daude jantzita. Sin mas, ez zuela eraman "jantzi behar zaitut" integratzeko.”

A2: “Nere kasuan iguala, azkenean etxean dena euskaraz egiten da, familia dena euskalduna eta tradizioak eta dena ba denek egiten zituzten moduan ba nik ere bai, eta ordun ba ez da izan como jarri didatela "venga sartu behar zara hemengoan", ba lehengusu guztiak fila batean haciendo lo mismo.”

Gauzak horrela, elkarrizketatu guztiak euskaldunak sentitzen dira. Haien identitateen hierarkian (Stryker, 1980, 1987, Simon-ek aipatua, 2004) euskaldun nortasunak askoz ere pisu handiagoa du, jatorrizko nortasunarekiko alde elkarrizketatu batetik bestera aldatzen den arren: adopzioa ikuspegi negatiboago batetik ikusi eta desberdintasunak ukatzen (Berastegui eta Gomez, 2007) dituen elkarrizketatuarengan (A2) jatorrizko nortasunak “ez dauka pisurik”; adopzioaren lanketa urria duen elkarrizketatua (A5) euskaldun sentitzen da, baina nortasunari buruz gutxi pentsatzen duela aitortzen du; adopzioa gehiago landu dutenen artean jatorrizko nortasunak badu lekurik haien identitatean, baina ez dute jatorrizko kultura haiena bezala hartzen, ukatu ezin duten haien bizitzaren zati bati lotutako zerbait bezala baizik.

A1: “Ni baita euskalduna sentitzen naiz, baina egia da Txinako zati hori, barneratzen det nire identitatearen barruan, baina ez kultura txinatarra, baizik eta ni Txinakoa naizela eta nire bizitzaren zati hori existitu izan dela eta.”

Aipatu beharra dago ikusgarriak diren “arraza” arteko adopzioetan besteen begiradak elkarrizketatuak haien nortasunari buruz pentsatzera bultzatzen dituela, eta askotan euskaldunak direla “frogatu” behar izan dutelaren sentsazioa azaleratu dute. Denborarekin eta adopzioa landuz joan ahala, sentsazio hori gainditu eta nahi dutena izan daitezkeela aldarrikatzeko gai izan dira.

A1: “Ni euskaldun sentitzen naiz, baina bai gertatzen dela igual ez geniokeela hainbeste buelta emango kanpoko jendeak ez baligu jarriko hainbeste presio gainean.” (...) “Azkenean ematen du demostratu egin behar dezula hemengoa zarela, orduan euskara gehiago eta hemengo kultura gehio barneratzen, (...) baina ez diot inori ezer frogatu behar azkenean.”

4.6. Arrazaren integrazioa eta esanahia

Ikus bezala, adopziozko kultura eta komunitatean integratuak izateko arrazak oztopo handia suposatu dezake. Hain zuzen ere, elkarrizketatuek euskaldunak direla “frogatu” beharraren atzean arrazakeria dago, haien itxuragatik ez baitira euskalduntzat onartuak. Horren aurrean, psikologoak dioenez, adoptatuen abantaila haiek eraiki beharreko nortasuna gehigarria (“*identidad aditiva*”) dela da, nahi adina identitate izateko aukera dute, euskaldun sentitzeko eskubidea defendatzeko balio diena.

A1: “(...) euskalduna naiz eta ez, abertzalea ez, baina bai, hemengoa sentitzen naiz eta dena, baina egia da (...) nerabezaroan (...) ez nintzen seguru sentitzen erreklamatzeko igual bai, euskal independentzia no sé que, ze jaso izan ditut komentarioak rollo, "ze ari zea zu esaten euskalduna zarela, eta euskaldunentzako edo euskaldunen gauzak erreklamatzeko", nire itxura kanpotarra denez ez? Eta ordun horrek momentu batean ba atzeraka bota ninduen bastante ez? Jo ba hemen ez badidazute (...) azeptatzen ba nola sentituko naiz hemengoa, baina gero konturatzen zara bi komentario egin dizkizutelako ez da iritzi orokorra ez? Eta zu sentitu behar zara nahi duzun tokikoa, (...).”

Gero eta hedatuagoa dagoen ezker abertzaletasunaren diskurtsotik, euskal eraikuntza nazionala (naziogintza) herri eraikuntza demokratikoa (herrigintza) da, integrazio-mekanismo ez-esentzialistetan oinarrituta (hala nola euskararen aldeko egitea), edo borondate politikoarekin zein gizarte-klase objektiboarekin lotuta: euskalduna da izan nahi duena. Bere nortasun politikoa euskal herritartzat definitzen duena, edo Euskal Herriko biztanle eta langile dena euskalduna da (Zubiaga, 2014). Esan genezake egungo diskurtso publikotik euskal nazioa Rita Segato antropologak (2007) talde etniko gisa izendatutakotzat identifikatu nahi dela, kultura-ondare idiosinkratiko bat eta amankomuneko berezko historia bat partekatzen duen talde sozial bat, zeinu fenotipiko bereizgarri gabekoa. Elkarrizketatuek izandako esperientziek, ordea, argi uzten dute errealitatean euskalduna izatea oraindik ere fenotipo zehatz batzuei lotu ohi dela. Adopzioa ebidenteak ez denean, hala nola A6-ren kasuan, euskaldun nortasuna onartu eta adopzioa azalera-erantzak harridura sustatzen du.

A6: “Osea, el perfil ruso normalmente suelen ser eso, pues rubio, ojos azules y yo soy todo lo contrario, pelo negro, moreno, y claro, que es eso. Osea igual, sobre todo también pues ahora en la uni así de repente, pues cuando hemos tenido que hacer algún trabajo y de dónde eres y así, digo esto y otras, tú, pero si no parece nada. Y yo creo que sobre todo por eso, ¿no?”.

Aldiz, haien fenotipoengatik bestelako jatorria ezkutatu ezin duten adoptatuei, “arraza” arteko adopzioa ebidente den kasuei, euskaldun nortasuna zalantzan jartzen zaie.

A4: “Jendeak ikusten gaitu desberdinak garela txinatarrak garela eta ezin dugulako ezkutatu, eta pentsatzen dute zure identitatearekin, zure egoera sozialarekin, eta guztia sartu daitezkeela.”

Argi dago adoptatuen identitate-narratiban arrazaren auzia integratzea ezinbestekoa dela identitate positibo eta osatu baten eraikuntza errazteko (Mirabent, 2014). Psikologoak salatzen duenez, herrialde oso etnozentratuan kokatzen gara, eta antzeman daitekeenez, adoptatuen jatorrizko herrialdeari buruzko aurreiritzi ugari aurki daitezke, haien integrazioan eragin handia izan dezakeena. Egoera zehatz batean norbait izango dena testuinguru sozialak baldintzatzen du, eta kategoria sozial bateko “bakarra” izateak (hala nola arraza-etnia batekoa) kategoria hori azpimarratu eta horrekin etor daitezkeen estereotipoen eragin negatiboak intentsifikatu ditzake (Oyserman, 2001). Jatorri asiatikodunengan, adibidez, haien asiaticotasuna azpimarratua izateak eragin positibo edo negatiboak izan ditzake asiaticoei buruzko tokiko estereotipoen edukiaren arabera (Shih, Pittinsky eta Ambady, 1999, Oyserman-ek aipatuta, 2001). Elkarrizketatuen kasuan, argi dago fenotipoen ondorioz beraien asiaticotasuna azpimarratu izan denean eragin negatiboak izan dituela batik bat, betiereko kanpotar gisa tratatuak izan baitira, mikroarrazismoz beteriko jarrerekin.

A3: “Batez ere, ze ondo hitz egiten duzu euskeraz. Niri ere esan zidaten, baina oso oso ondo, pasada bat, eta geratu nintzen, nolatan ez dut jakingo, daramat hemen... Eta esplikatuz, berdin zaidala, (...) baina bai, hamar hilabetekin etorri nintzala, eta nire istorio guztia...” (...) “Baino hori, ni ere bai konturatu naiz adopzio kontzeptua ez daukazula hain... hori begiratzen didate niri eta uste dute zuzenean txinatarra naizela. Hori aurrekoan joan nintzen Tagliatellara, euskeraz egin nuen, hori nago Bilbon, berdin zait, eta ingelesez erantzun zidan.”

Mikroarrazismoez gain, A2-k ezik elkarrizketatu guztiek jarrera arrazistak eta sexualizazioa pairatu dituztela salatu dute: beste neska txinatarrekin nahastuak izan, beste jatorri edo hizkuntza bat egotzi, haien fisikoari buruzko iritziak jaso, amets sexualen objektu izan dira... Horren aurrean erantzun anitzak izan dituzte, isiltasunarekin edo umorearekin erantzunez, edota garrantzia kenduz, besteen artean.

A1: “Gero konturatu nintzen beste neska batez ari zela, eta orduan ni "a ez, nahastu egingo zinen" eta "joe eske antza asko duzue denek" eta ni beno, voy a omitir eso.” (...) “A la minima beste txinatar bat ateratzen dena se te lia la cabeza. Ez dezu aurpegia irudikatzen, irudikatzen duzu arraza.” (...) “(...) bakoitzak ebaluatzen du zerk merezi duen eta zerk ez. Igual momentu batean nik egun txarra daukat (...) eta erantzuten dizut, baina bestetan (...) ez du merezi”

A4: “Askotan gizonak pila bat sexualizatzen gaituzte, nik sentsazio hori dauket, "ay, qué guapas sois las chinas", ez dakit zer, "con esa cara, esos ojos, bueno si se pueden llamar ojos". Hori esan zuen eta ez nekien zer esan.” (...) “Baina beti zoaz sentsazio horrekin, beti isildu behar zarela zu. Igual ez aguantatu, gestionatzen ikasi duzu.”

A5: “ (...) y que si china, que no sé qué... pero, no sé, porque siempre he sido bastante pasota en ese aspecto (...). Que igual ahora sí que le doy más importancia en el sentido de que, (...) me gusta hacer bromas sobre eso. Igual de pequeña como no tienes esa capacidad de, pues como de bromear y tal, pues no, como que no era tan consciente.”

Aipatzekoa da A2-k horrelako esperientziarik izatea ukatu izana. Oyserman-ek (2001) dioenez, identitate batekin lotura dutenek horrekiko mehatxuei erantzuteko modu bat dute, eta lotura ez dutenek bestelakoa. A2-ren kasuan, eta neurri batean A5-en kasuan ere, adopzioarekiko lotura eskasa duenez eta horrek zein bere fenotipoek eragindako desberdintasunak ukatzen dituenek, identitatearen zati horrekin datozen esperientziak existituko ez balira bezala jarduten du (Berastegui eta Gomez, 2007). Beste elkarrizketatuen kasuan, desberdintasunak onartzen dituztenez, arrazializazioari aurre egin eta horrekin (baita adoptatuak izatearekin) etor daitezkeen alde positiboak ikusteko gai dira (Berastegui eta Gomez, 2007). Jarrera arrazisten jasotzaile izateak “burua askoz ere irekiagoa” izaten laguntzen diela diote, enpatikoagoak izaten eta beraien eskutik jarrera arrazistak baztertzen. Horrela, arrazistak direnengandik bereiztu eta euren burua positiboki islatzen duen konparaketa egin dezakete, *self*-aren beharrei erantzuten dioena, positibotasuna bilatzen duen informazio prozesadorea baita (Oyserman, 2001).

A1: “Eta nik ez dudala horrela pentsatu nahi ez? Besteekiko enpatia gehiago eman didala eta ez dakit, hori, ez hainbeste prejuizio edukitzea.”

A3: “(...) eskerrak naizela pertsona arrazializatu bat ze bestela izango nintzen igual oso arrazista! Jajaja.”

Arraza-etnia bateko “bakarra” izateak ondorio gehiago ditu arrazismoaz gain. Hain zuzen, “bakarra” izateak erreferente falta dakar, identitate bat eraikitzeko beharrezkoa dena.

P1: “Pero el adolescente, para identificarse consigo mismo y construir su individualidad, necesita diferenciarse de las personas de su familia. Y entonces este proceso de diferenciación en los adoptados es más complicado, porque implica cosas que no hay en los no adoptados, como la ausencia de espejo biológico. El espejo biológico nos ayuda cuando tenemos hermanos, los hermanos y familiares te van dando pistas sobre cómo vas a ser tú, tus rasgos, pues voy a ser calvo o gordo, o solo tengo que mirar a mi padre o a mis tíos hermanos. Ellos me van a dar una idea de mi aspecto.”

Familiarrekin konparaketak egitea ezinezkoa izateaz gain, “arraza” arteko adopzioetako adoptatuek beren burua adopziozko kulturean erreferente direnekin konparatzeko ere zailtasunak izan ditzakete. Edertasun kanonak, adibidez, ez dira haien ezaugarri fisikoekin bateragarriak, eta horrek ziurgabetasuna dakar.

A4: “Azkenean, kanpotik datozen ba hori, edertasun kanonak, ez dakit zer, eta nik horrela nahi dut izan, nire ingurukoak horrelakoak dira... Eta hasten zara pentsatzen, en si beste arraza batekoa naiz, osea nire jendeak hau esaten dute, hola ezin naiz izan, eta horrekin eduki nuen pixka bat dilema.”

A3: “Nire prozesua izan da hori, bastante ondo eraman dudala beti. Baina egia da ba imajinatu, begiak nahi ditudala margotu, eta klaro ez da berdina!! Lagrimala edo...”.

A1: “Jo, pentsatzen nuen batzutan igual farran ateratzen naizenean que no ligo txinatarra naizelako, no gusto porque tal...” (...) “Joe eta niri adibidez gauza hauek konpartitzea eta txinatarrekin egiten nituen bilerak ba oso ondo etortzen zitzaidan.”

A1-ek esan bezala, erreferente faltari eta ziurgabetasunei aurre egiteko hurbileko erreferenteak edukitzea oso lagungarria da. Gauzak horrela, beraiek bezalako lagun edo ahizpa zein lehengusina adoptatu txinatarrek izan dituzten elkarrizketatuek adopzioa eta arrazaren gaiak hobeto landuak dituzte erreferente horiek ez dituztenek (A2) baino.

5. ONDORIOAK

Adoptatu izaera deskubritu eta integratzea adoptatu gisa identitate narratiba bat eraikitzeko lehen pausua litzateke. Deskubrimendu hori Lehen Hezkuntza garaian eman ohi da, adoptatuek haien familiekin duten *zaintza eta pertenezia loturaren* (Loizaga, 2013) legitimitatea kolokan jartzen denean. Erronka tarte horiek adopzioaz kontziente izateko bultzada diren arren, adoptatuek ez dute “deskubrimendu” une zehatz baten oroitzapenik, adopziozko gurasoen eta familiaren eskutik egindako lanketari esker haien nortasun hori ez baita “inoiz sekretu bat izan”, “naturalitate guztiarekin eraman” izan da. Gurasoek eta hurbileko senideek adoptatua izateari *markaje positiboa* ezartzen badiote (batez ere arraza arteko adopzioetan), gaiari buruz hitz egiten bada eta zalantzak argitzen badira, haien eta adoptatuaren arteko harreman mota legitimatzeko tresnak eskaini eta izaeraren deskubrimendua prozesu jarraitu bat bihurtzen dute, bortizkeriak ekidinez. Horrela, adoptatuentzako haien familia “benetakoa” eta legitimoa bihurtzen da.

Adopzioaz kontziente izateak *adopzio prozesuaren ezagutzaren* beharra dakar, narratiban jatorriaren hutsunea bete ahal izatea. Gurasoek kontatuta, elkarrizketatu guztiek prozesu hori ezaguna dute, eta istorioen elementuekin (Bruner, 2005, Rutten eta Soetaert-ek aipatuta, 2012) irudikatzen dute. Narrazio horren bitartez adopzioari buruzko zenbait galdera erantzun ditzakete: zergatiaren aurrean, gurasoek seme-alabak izan nahi zituztela eta horretarako erronka edo zailtasunak zituztela esan dezakete; topatu ziren unea deskribatu dezakete, itxarongelak edo momentuko jarrerak azalduz besteak beste; edota prozesuan emandako sentimenduak adierazi, “ezagutu baino lehen maitatzen” zituztela. Adopzio prozesua haurdunaldi batekin konparatuta, argazki-bildumak ikusita, ipuinak irakurrita... berriro ere haien familia legitimatzen dute.

Adoptatua izateak abandonu bat eta desplazamendu bat dakar ezinbestean. *Jatorriaren eta abandonuaren auzien* dolua beharrezkoa da identitate positibo bat eraikitzeko. Adopzioa eta horretarako prozesua gurasoekin landu duten elkarrizketatuek abandonua testuinguratu eta horren konnotazio negatiboa arindu dute, guraso biologikoek zailtasunez emandako “bizitza duinago” baterako “aukera” bihurtuta. Lanketa urria dutenek, aldiz, abandonuari eta jatorriari buruz hitz egiteko zailtasunak dituzte, emozionalki edo oroimen gaitasun aldetik. Jatorriari buruz informazioa edukitzeak, aldiz, bestelako hurbilkera dakar, jakin-mina “bitxikieritza” hartzen diren auzietara zuzenduta baitago.

Abandounari konnotazio negatiboa kendu dioten arren, esperientzia traumatikoa izaten jarraitzen du. Horregatik, jatorriari buruz zuzeneko oroitzapenak dituen elkarrizketatuaren (A6) oroitzapenak ezik, beste guztien *lehen oroitzapenak* hemengo bizitzan hasten dira, *self*-aren kultura europearrari jarraiki oroitzapen pertsonalak eta norberari buruzkoak izanik, baina taldeari garrantzia emanez ere (Libby eta Eibach, 2007).

Lehen oroitzapenak elkarrizketatuek hemengo bizitzarekin duten lotura handiaren seinale dira. Hain zuzen, *jatorrizko kultura* ukatu ezin duten haien bizitzaren zati bati lotutako zerbait bezala ikusten dute, ez haien identitatearen zati integral gisa. *Adopziozko kulturaren integrazioa* aldiz sakona da, elkarrizketatuak “euskaldun sentitzen” dira, hemengo tradizioak naturalki barneratu dituzte komunitatearekin (familian, ikastola edo eskolan...) eta giroarekin izandako harremanari esker, eta zergati bereziengatik ez bada hemengo izenari lehentasuna ematen diote, desberdintasunak ukatzen dituenak (Berastegui eta Gomez, 2007) jatorrizko izena arbuizatzen iritsi arte, bestelako jatorriaren oroigarri baita.

Integrazioa sakona izan arren, besteen begiradak (Loizaga, 2013) erronka handia suposatu dezake bertakoa guztiz sentitu ahal izateko, batez ere “arraza” arteko adopzioetan. *Arraza initegratzea eta esanahi positiboa eskaintzea* berebizikoa da arrazismoei eta erreferente faltei aurre egiteko, haien fenotipoen ondorioz euskal nortasuna zalantzan jarri denean “nahi duten tokikoak sentitu daitezkeela” (nortasun gehigarria) gogoratzeko, haien nortasuna inori frogatu behar gabe. Arrazalizazioaren ondorio negatiboari buelta eman eta *self*-a positiboki aurkezteko baliabide bihurtzen da, “buru irekiagoa” izateko, enpatikoagoak bihurtzeko eta norbere burua arrazistetatik bereizteko.

Adoptatuen identitate-narratiba osatzen duten topiko hauek lantzeak *adopzioari esanahia* emateko balio du, haien bizi-narratibaren alderdi horri zentzu bat emateko. Topiko horiek gero eta gehiago landu, adoptatuak euren desberdintasunak onartzeko gero eta gaituagoak dira, identitateari eta adopzioari esanahi positiboagoak eskaintzeko (Berastegui eta Gomez, 2007). Horrela, beraien “benetako” familia horretan haien existentzia nahita bilatua izan dela aldarrikatzen dute, haien etorrera sakonki hausnartua. Baldintza latz eta anitzen ondorioz haien jatorritik bizitza berri batera igaro diren zorte oneko pertsonak dira, maitatuak, bilatuak, eta bertoko beste edozein bezalakoak, berezitasun batzuekin bada ere.

Berebizikoa da adopzioaren lanketa tentu handiz eta auziak dituen inplikazio ekonomiko eta sozio-politikoekiko kontzienteki egin behar dela gogoan izatea. Adoptatuek identitate-narratiba osatu eta integratu bat eraiki dezaten adopzioari esanahi positiboa ematea ezinbestekoa den arren, haren idealizazioarekin kontuz ibili beharra dago. Adopzioa ikuspegi positibo batetik ikustearen atzean “erreskate ideologia”-ren zantzuak antzeman daitezke: ikerlan honetako elkarrizketatuek, haien adopziozko familiekin batera, adopzioa maitatuak eta bilatuak izango ziren “benetako” familia eta jendarte batera iristeko abagune gisa eraiki dute. Adopzioa bizitza on bat izateko aukera gisa ikustea lagungarria izan daitekeen arren, askotan bizitza berri horren idealizazioa eta jatorriaren irudiaren kaltetze eta zikintzea dakar. Idealizazio eta zikintze horiek gero eta handiagoak izan, adoptatuak jatorriarekin izango duen harremana gero eta gehiago kaltetuko da, harekiko sor daitekeen identifikazio ororen ukapena eraginez: jatorriarekin lotura duten oroitzapenak ahaztu, adoptatua izateagatik izandako bizipenak arbuatu edota fenotipoek eragindako desberdintasunarekiko ez ikusiarena egitea eman daiteke, adoptatuaren identitate-narratiban hutsuneak eraginez, A2-ren kasuan bezala.

Adopzioa positibo bihurtzeko saiakeran abandonuaren auzia agertzen da, adoptatuen desplazamendua justifikatzeko balio duena. Adoptatua klase sozioekonomiko baxuago batetik dator, pobreziatik, gizarte patriarkal batetik... guraso biologikoek euren burua haurra adopzioan ematera derrigortuta ikusi zuten, bizitza hobeago bat eman nahi bazioten. Jenifer de la Rosa adoptatu, zinemagile eta aktibistak (2023) aldarrikatzen duen bezala, ordea, haur bat adoptatzeke egotearen atzean arrazoi ugari egon daitezke, eta baliteke guraso biologikoak haurrarengandik nahi gabe banandu izana, hondamendi-natural baten ondorioz, adibidez. Baliteke ere adoptatuek jatorrizko herrialdean izango luketen bizitza oraingoaren bezain duina izatea, ziurtatu ezin daitekeen arren.

Gogoan izan behar dugu, arestian aipatu legez, nazioarteko adopzioan globalizazio garaiko herrialdeen arteko botere-harremanak islatzen direla, askotan harrerako herrialde eta familien interesak gailenduta. Adopzioa mendebaldean autokontsumorako erabili den justifikazio eta autolaudio legitimatzailea izan da ere, jatorrizko herrialdeekiko ikuspegi eurozentrista eta paternalista bultzatuta. Baina adoptatuen harrera herrialdeak ez dira jatorrizko herrialdeek dituzten arazoetatik libratzen. Euskal Herriko gizartea, hala nola, arrazista, patriarkala eta matxista da: errealitate hori ukatu nahi den arren, balio horien zuzeneko

eragina agerikoa da lan honetan zehar jasotako testigantzetan, dela adoptatuen sexualizazioaren bitartez, dela jasotako jarrera arrazisten bitartez, besteak beste.

Balio arrazista eta patriarkalek adoptatuen identitatearengan eragin materiala dute: identitatea balore edo kategoria sozialek baldintzatzen dute, ez soilik narratibaren eraikuntzan, baita narratiba horren gorpuztean ere. Lan honetan ikusi bezala, arrazakeriaren eraginez lotura biologikodun familak izendatzeko “benetako” bezalako kategoriak eraiki eta fenotipoen arabera “hemengoak” direnak ezartzen dira, adoptatuen identitate-narratiban zuzeneko eragina dutenak. Baina arrazakeriaren eragina ez da diskurtsoetan geratzen. Feminismo materialistak azaldu bezala (Goikoetxea, 2023), balore horiek gorpuztu egiten dira, eragin materiala dute, “hemengoak” izateko gure janzerak, gure fisikoa... harrerako gizartean kanonikoak diren horietara hurbiltzeko moldatzen baititugu.

Txinatik etorritako elkarrizketatuekin partekatu dezakedan beste esperientzia bat gure fenotipoetara moldatzen diren erreferenteen gabezia da: ez dugu zeinekin identifikatzerik, bizi garen gizarteko edertasun kanonak ez daude gure eskura, eta gure fenotipoak partekatzen dituztenen edertasun kanonetara iristeko kultura eta bizipen-gakoak falta zaizkigu. Arrazakeria eta patriarkatuaren eragina ez da jasotzen ditugun hitzek geure buruari buruzko diskurtsoan hartzen duten lekuan geratzen, jasotzen ditugun begiradak geure begiradan sartzen direnean aurki daiteke ere, geure gorputzarekin deseroso sentitzen garenean, harekin identifikatzeko zailtasunen sorreran...

Esperientzia pertsonaletik abiatuta, adoptatu izaera “naturalki” (azaleko traumarik gabe) onartu eta integratzeko eta adoptatua izateagatik sor daitezkeen erronkei aurre egiteko aipatutako guztiari buruz hitz egin beharra dago. Ikerlan osoan zehar ikus daitekeenez, identitate eraikuntza positiboak dituzten elkarrizketatuek gai guztiei buruzko lanketa egin dute adopziozko guraso eta familiarekin. Haien partekatutako bizipenak eta eraikitako narratibak nirearengandik gehien hurbiltzen direnak dira, guztiek aztertutako topikoak landu eta horretarako antzeko baliabideak erabili baititugu: gertuko solasaldiak, gaiaren aipamen edo lanketa jarraia bizitzaren aro desberdinetan, txikitatik izandako adopzioaren ezagutza eta kontakizuna argazkien, ipuinen eta bestelakoen bitartez... *Markaje positiboa* eraiki dugun adoptatuek erronkak onartu eta adopzioa integratzeko ahalmen handiagoa dugu. Lanketa urria dutenek, aldiz, hutsune gehiago eta gaia ekiditeko joera handiagoa dute.

Dena den, identitate positiboa eraiki eta adoptatu izaera integrazeko gurasoekin egindako *markaje positiboa* ez da nahikoa, berebizikoa bada ere. Nazioarteko adopzioekin datozen genero, arraza, eta bestelako erronka eta zapalkuntza sozialei aurre egiteko horiei buruz hitz egiteko gai izan behar gara. Gurasoek, familiak eta hurbilekoek, haiekin izandako solasaldien edo beste bideen bitartez feminismoak, antiarrazismoak edo bestelako mugimenduek eskainitako terminoetara hurbildu behar gaituzte. Zapalkuntzak identifikatzeko eta horiei aurre egin ahal izateko zapaltzen gaituzten termino eta kategoriak ezagutu eta bereganatzeko gai izan behar gara (Wittig, 2017). Horrela, elkarrizketatuok emakumea, txinatarra edo arrazializatua izatearen esanahi negatiboa moldatu eta geure burua irekiagotzat, anti-arrazistatzat, feministatzat...identifikatu ahal izan dugu.

Aipatzekoa da adopzioa positiboki integrazeko aurkeztutako irtenbide guztiak maila pertsonalean izan direla. Adopzioari esanahi positiboa ematea zailtzen duten erronkak, adoptatua izateagatik datozen zapalkuntzak, ordea, gizartetik datoz. Identitatea baldintzatzen duten balore edo kategoriak sozialak dira, adoptatuek pairatutako jarrera klasista, arrazista eta matxistak besteren artean gizartean ematen dira. Adopzioa ez da familiaren baitan soilik landu beharreko auzia. Elkarrizketatu guztiekin eta adopzioan adituarekin bat egiten dut adopzioa gizartean landu beharreko gaia dela aldarrikatzerakoan. Guztiek bat egiten dugu adopzioari buruz dagoen ezjakintasuna handia dela salatzerakoan, eta ezjakintasun horretatik askotan aipatutako jarrera negatibo eta zapaltzaileak datoz. Adopzioa hezkuntzan eta osasungintzan landu beharreko gaia da, biztanlerian adoptatuek osatzen duten kopuru nabarmena kontuak izanik haien ezaugarri hori ia erabateko ezkutupean baitago.

Ez hori bakarrik, ikerketa anitzek adopzioa instituzioetatik eta politikatik lantzea eskatzen dute ere: marko makrosozialetik adoptatuen eta aniztasunaren beharrei erantzuten dieten politikak behar dira, eta adoptatuak estigmatizatuko ez dituen laguntza profesionala garatu behar da (Martin, 2018). Adoptatuek eta haien familiek erreferenteak behar dituzte, ezagutza behar da. Hasieran esan bezala, adopzioari buruzko ikerketak ez dira behar bezain beste. Interesgarria litzateke adoptatuen arteko harremantzea, adopzioari buruz zer eta norekin esaten duten ezagutzea (Martin, 2018), edota adoptatuek *self*-a osatzen duten rol eta ezaugarri anitzen inplikazioak nola bizi dituzten aztertzea. Edozein arazo konpondu eta irtenbiderik eman nahi bazaio, arazo hori mahaigaineratu eta horri buruz hitz egin beharra dago, hortan datza politikaren gakoa. Adopzioaren auzia ez da inolako salbuespenik.

BIBLIOGRAFIA

- Agintzari (d.g.). *La postadopción en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Claves para un abordaje estratégico del fenómeno de la postadopción*. Agintzari. Eskuragarri hemen: https://scholar.google.com/scholar?hl=fr&as_sdt=0%2C5&q=LA+POSTADOPCI%33%93N+EN+LA+COMUNIDAD+AUTONOMA+DEL+PAIS+VASCO&btnG=
- Apodaka, Eduardo (d.g.). *Norberatasunaren izaera soziala*. Gizarte Psikologia irakasgaia, argitaratu gabea, EHUko Soziologia Politika Zientzien graduko eskoletako materiala.
- Berastegui, Ana eta Gómez, Blanca (2007). *Esta es tu historia*. Universidad Pontificia Comillas.
- Blewett, Kate eta Woods, Brian (1995). *Las habitaciones de la muerte* [Dokumentala]. Lauderdale Productions. Eskuragarri hemen [YouTube fitxategia]: <https://www.youtube.com/watch?v=EMi7I7B9T3E>
- Cartas, Nieves (2019). *La huella de la adopción: una revisión de las dificultades en la construcción del vínculo e identidad*. [Gradu amaierako lana.] Madril: Universidad Pontificia Comillas. Eskuragarri hemen: <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/handle/11531/31859>
- CNA Insider (2018). *China's Leftover Men: Desperately Seeking Wives*. [On-line bideo fitxategia]. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=u4orO0p788k&t=11s>
- De la Rosa, Jenifer (2023). *Jatorriaren bilaketa bizipenak*. Mintzaldia, “Hija del Volcán” luzemetraiaren aurkezpena. Donostia: Ume Alaia Gipuzkoa.
- Euskaltzaindia (2023). Adoptatu. In *Orotarako Euskal Hiztegia*. 2023ko irailak 13an, hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=sarreraIkusi&Itemid=413&lang=eu&id=120983
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2023). *Adopciones en China*. Gizarte Politikako Departamentua.
- Goikoetxea, Jule (2023). *Feminismo materialista*. Teoria Politiko Garaikidea II irakasgaia, argitaratu gabea, EHUko Politika Zientzien graduko eskoletako materiala.
- Gómez, Paula (2018). *Facilitadores de la formación de la identidad en adopción internacional*. [Gradu amaierako lana.] Madril: Universidad Pontificia Comillas. Eskuragarri hemen: <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/handle/11531/22328>

- Ibáñez, Isabel (2015). “Aquellas tristes niñas chinas” *El Diario Vasco*. Apirilaren 5a. Azala: 1.
- Íñiguez, Lupicinio (2001). “Identidad: De lo Personal a lo Social. Un Recorrido Conceptual.”, Eduardo Crespo (Ed.), *La constitución social de la subjetividad*. (p. 209-225). Madril: Catarata
- Libby, Lisa K., eta Eibach, Richard P. (2007). “How the self affects and reflects the content and subjective experience of autobiographical memory” C Sedikides & S.J. Spencer (Eds.), *The self* (pp. 75-91) New York: Psychology Press.
- Loizaga, Félix et al. (2009). *Nazioarteko adopzioak: neska-mutilen eta familien eboluzioa*. Espainia: Deustuko Unibertsitatea, Pediatría Saila eta Euskal Herriko Pediatría Elkarte. Eskuragarri hemen:
https://scholar.google.com/scholar?hl=fr&as_sdt=0%2C5&q=NAZIOARTEKO+ADOPZIOAK%3A+NESKA-MUTILEN+ETA+FAMILIEN+EBOLUZIOA&btnG=
- Loizaga, Félix (2013). “Trabajando la identidad positiva con las personas adoptadas. Familias, apegos y vínculos como estrategias de consolidación de la identidad”. *Cuadernos de Psicomotricidad*.
- Lorenzi-Cioldi, Fabio eta Doise, Willem (1996. “Identidad social e identidad personal”, Richard Y. Bourhis eta Jacques-Philippe Leyens *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*. Espainia: Folio Blanco S.L.
- Martín, Itxaso (2020). “Reflexiones en torno al nuevo escenario de la adopción”. *Zerbitzuan*, 71, 37-51.
- Martin, María José (2018). “La adopción internacional, estudios referentes a los vínculos de los adolescentes, búsqueda de identidad y percepción del apoyo social percibido con los pares”. *Trabajo Social Hoy*, 86, 37-52.
- Mayor, Virginia (2021). *Dificultades identitarias en niños adoptados transracionalmente. La afeción del racismo*. [Gradu amaierako lana.] Madril: Universidad Pontificia Comillas. Eskuragarri hemen:
<https://repositorio.comillas.edu/xmlui/handle/11531/50901>
- McConnell, Allen R., eta Strain, Laura M. (2007). “Content and structure of the self” In Sedikides & S Spencer (Eds.) *The self in social psychology* (pp. 51-79 Sew York: Psychology Press.

- Mirabent, Vinyent (2014). “El adolescente adoptado: dificultades añadidas en el proceso de construcción de su identidad.” *Temas de psicoanálisis*, 8, 1-35.
- Oyserman, Daphna. (2001). “Self-concept and identity.” In A. Tesser & N. Schwarz, *The Blackwell Handbook of Social Psychology* (pp. 499-517). Malden, MA: Blackwell.
- Palacios, Jesús (2009). *La aventura de adoptar. Guía para solicitantes de adopción internacional*. Madrid: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa.
- Rutten, Kris eta Soetaert, Ronald (2012). “Narrative and Rhetorical Approaches to Problems of Education. Jerome Bruner and Kenneth Burke Revisited”. *Stud Philos Educ*, 32, 327-343.
- San Román, Beatriz (2015). “De la dificultad de pensar la construcción de la identidad sin anclajes fijos: la adopción transnacional en España”. *Scripta Nova*, vol. XIX, 510-5. Eskuragarri hemen: <https://revistes.ub.edu/index.php/ScriptaNova/article/view/15093>
- San Román, Beatriz (2021). *Fundamentos y prácticas de la adopción contemporánea*. UOC.
- Segato, Rita. (2007). “Racismo, discriminación y acciones afirmativas: herramientas conceptuales.”, Juan Ansion and Fidel Tubino (edn.) *Educación en ciudadanía intercultural. Experiencias y retos en la formación de estudiantes universitarios indígenas*. Peru: Fondo Editorial de la Pontificia Universidad Católica del Perú. (63-89). Eskuragarri hemen: <http://dan.unb.br/images/doc/Serie404empdf.pdf>
- Simon, Bernd (2004). *Identity in Modern Society: A Social Psychological Perspective*. Eskuragarri hemen: <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/book/10.1002/9780470773437>
- Stiths, Anyerson eta Rojas, Jennifer (2021). “El construccionismo social en la conducta suicida: conversaciones narrativas con estudiantes universitarios”. *Quaderns de Psicologia*, vol. 23, 1, 1-25.
- Van Dijk, Teun A. (2015). *Critical Discourse Analysis*. In Deborah Tannen, Heidi E. Hamilton & Deborah Schiffrin (Eds.) *The Handbook of Discourse Analysis (2nd Ed.)*. (pp. 466-485). Chichester: John Wiley & Sons.
- Pérez (2020).
- Wittig, Monique (2017). “Pentsamendu heterozuzena” (1980). In J., Goikoetxea (Ed.) *Pentsamendu heterozuzena*. Lisipe. (13-25 or.)
- Xue, Xinran (2003). *Nacer mujer en China*. Barcelona: EMECE.

Xue, Xinran (2011). *Las hijas del Yang-Tse: historias de amor y pérdida*. Bartzelona: EMECE.

Vox (2023). *Why China's population is shrinking*. [On-line bideo fitxategia]. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=gmeHUGOy5ok&t=237s>

Zubiaga, Mario (2014). El ciclo de protesta en Euskal Herria: hegemonía y radicalización democrática. In Zubiaga, M., Ibarra, P., Gómez, D. eta Vilaregut R. *La rebelión vasca. Una historia de l'Esquerra abertzale*. Editorial Icaria.

ERANSKINAK

Elkarrizketatuentzako Informazio Orria



GrAL ikerketa proiektua. 2022-2023.

Proyecto de investigación TFG. 2022-2023.

Euskaraz

Egun on/Arratsalde on!

Paula Jie García naiz, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publiko graduko laugarren mailako ikaslea UPV/EHUn. Gradu Amaierako Lanerako (GrAL) identitateari buruzko ikerketa bat garatzen ari naiz. Zehazki, gizarte psikologiaren alorretik heldu nahi izan diot. Hain zuzen ere, txinatar jatorridun neska adoptatua naizen heinean, nortasun hori Euskal Herriko gizartean nola gorpuzten den aztertzea bereziki aberasgarria iruditu zait. Ikerketa, beraz, 2000 eta 2005 urteen artean Euskal Herrira Txinatik adopzioaren bitartez etorritako haurrengan ardaztu nahi izan dut. Bakoitzaren identitate propioaren garapena ikertzeko, talde elkarrizketa bat antolatzea bilatu dut; identitatea narratiba gisa ulertuta, helburua haurtzarotik gaztaroraino hura eraikitzeko erabili ditugun elementuak azalratzea da, aman komunean eduki ditzakegunak eta ezberdintasun nagusiak identifikatzeko. Horretarako, ikerlariaren rolaz gain elkarrizketatuen artean kokatuko naiz ere, guztion artean solasaldian geure bizi-esperientziak partekatzeko, eta adopzioak Euskal Herriko testuinguru sozio-politiko berezian hazi garenongan izandako eraginari buruz hausnartzeko espazio seguru bat sortzearen.

Elkarrizketa honen iraupena ordubete ingurukoa izango da eta zure parte hartzea bolondresa, hortaz, edozein momentutan emandako baimena atzera botatzeko eskubidea duzu. Zure anonimatoa bermatuta egongo da. Bildutako informaziorako sarbidea izateko eta ikerketa burutzeko elkarrizketa grabatua izango dela jakinarazten dizut. Nahi izatekotan, ikerketaren emaitzak eskuragarri izango dituzu.

Zuzendaria: Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea

Saila: Gizarte Psikologia



GrAL ikerketa proiektua. 2022-2023.

Proyecto de investigación TFG. 2022-2023.

Gazteleraz

¡Buenos días/buenas tardes!

Me llamo Paula Jie García, estudiante de cuarto curso del grado de Ciencia Política y Gestión Pública en la UPV/EHU. Estoy llevando a cabo una investigación sobre la identidad para mi Trabajo de Fin de Grado (TFG), enfocado desde la psicología social en particular. Precisamente, al ser adoptada y de origen chino, me ha resultado especialmente interesante investigar cómo se materializa esa identidad en la sociedad vasca. Por lo tanto, he querido centrar la investigación en las niñas llegadas desde China mediante la vía de la adopción al País Vasco entre 2000 y 2005. Para estudiar el desarrollo de la identidad propia de cada quién, he decidido organizar una entrevista grupal; entendiendo la identidad como narrativa, el objetivo trata de sacar a la luz los elementos utilizados desde la infancia hasta nuestra juventud para construirla. Así, se quieren identificar los elementos compartidos y las principales diferencias. Para ello, además del rol de investigadora, me situaré también entre las entrevistadas, para poder crear un espacio seguro en el que conversar y poder compartir nuestras experiencias vitales, así como reflexionar sobre la influencia que haya podido tener la adopción para quienes hemos crecido en el contexto socio-político único del País Vasco.

La duración de esta entrevista es de aproximadamente una hora y su participación es voluntaria, por lo que tiene derecho a revocar la autorización concedida en cualquier momento. Su anonimato estará garantizado. Para acceder a la información recopilada y llevar a cabo la investigación le informo que será una entrevista grabada. Podrá tener acceso a los resultados de la investigación en caso de así quererlo.

Director: Eduardo Apodaka Ostaikoetxea

Departamento: Psicología Social

Adoptatuentzako elkarrizketa-gidoia



GrAL ikerketa proiektua. 2022-2023.

Proyecto de investigación TFG. 2022-2023.

Egilea: Paula Jie García Cardeñoso

Zuzendaria: Eduardo Apodaka Ostaikoetxea

Saila: Gizarte Psikologia

Aurkezpena:

Egun on/Arratsalde on!

Paula Jie García naiz, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publiko graduko laugarren mailako ikaslea UPV/EHUn. Gradu Amaierako Lanerako (GrAL) identitateari buruzko ikerketa bat garatzen ari naiz. Zehazki, gizarte psikologiaren alorretik heldu nahi izan diot. Hain zuzen ere, txinatar jatorridun neska adoptatua naizen heinean, nortasun hori Euskal Herriko gizartean, batik bat Hego Euskal Herrian, nola gorpuzten den aztertzea bereziki aberasgarria iruditu zait. Ikerketa, beraz, 2000 eta 2005 urteen artean Euskal Herrira Txinatik adopzioaren bitartez etorritako adingabeengan ardaztu nahi izan dut. Bakoitzaren identitate propioaren garapena ikertzeko, talde elkarrizketa bat antolatzea bilatu dut; identitatea narratiba gisa ulertuta, helburua haurtzarotik gaztaroraino hura eraikitzeko erabili ditugun elementuak azaleratzea da, aman komunean eduki ditzakegunak eta ezberdintasun nagusiak identifikatzeko. Horretarako, ikerlariaren rolaz gain elkarrizketatuen artean kokatuko naiz ere, guztion artean solasaldian geure bizi-esperientziak partekatzeko, eta adopzioak Euskal Herriko testuinguru sozio-politiko berezian hazi garenongan izandako eraginari buruz hausnartzeko espazio seguru bat sortzearen.

Elkarrizketa honen iraupena ordubete ingurukoa izango da eta zuen parte hartzea bolondresa, hortaz, edozein momentutan emandako baimena atzera botatzeko eskubidea duzue. Zuen anonimatoa bermatuta egongo da. Bildutako informaziorako sarbidea izateko eta ikerketa burutzeko elkarrizketa grabatua izango dela jakinarazten dizuet.

Hau esanda, elkarrizketari ekingo diogu.

Sarrera:

Aurkezpena

- Hasteko, zein da zuen izena eta nola gustatuko litzaizueke zuengana zuzentzea?
- Non jaio zineten? Noiz iritsi zineten Euskal Herrira? (Urtea, adina...)
- Deskribatuko zenidakete zuen familiak?
- Non hezi zarete? Non bizi zarete orain?
- Zertan ari zarete gaur egun, zein da zuen okupazioa? (ikasketak, lanbidea...)

Haurtzaroa

Lehen nortasunak

- Zein esango zenukete dela zuen lehen oroitzapena? Zer etortzen zaizue burura zuen haurtzaroari buruz pentsatzean?
- Nola deskribatuko zenukete zeuen burua haurtzaroan?
- Ba al zenekiten adoptatuak zinetela? Noiz konturatu zineten lehen aldiz, eta nola?
- Garrantzirik ematen zenioten haurrak zinetenean? Eraginik al zuen zeuen burua ikusterako edo deskribatzerako garaian?

Adopzioa: prozesua eta jorrapena

- Ezagutzen al duzue zuen adopzio prozesua? Noiz eta nola ezagutu duzue? Deskribatzeko gai izango zinatekete? (Bidaia, denbora tartea, partaideak...)
- Adopzio Erakunderen batek parte hartzerik izan zuen? Baduzue harremanik horrelako erakundeekin? (Ume Alaia, Adecop, Asaldenia...)
- Adopzio prozesuaz gain, adopzioaren gaia jorratzen al zen zuen familian? Zer nolako trataera eman zaio gaiari zuen haurtzaroan? (familia, ingurune hurbila, eskola, lagunak...)
 - Normaltasuna
 - Isiltasuna
 - Jatorriaren ideia eta jatorrizko kulturarekin harremantzea
- Baliabiderik erabiltzen zuten gaia jorratzeko? (Dokumentazioa, izenak, jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa, “bizitza-liburua”, tailerrak, ipuinak...)
- Ba al zenuten kezkarik edo galderarik gaiari buruz? Erantzunik jasotzen zenuten?

Nerabezaroa

Identitatearen berrikuspena nerabezaroan

- Nola deskribatuko zenukete zeuen burua nerabezaroan?
- Garrantzirik ematen zenioten adoptatua izateari? Eraginik al zuen zeuen burua ikusterako edo deskribatzerako garaian?

Adopzioa: jorrapena

- Ba al zenuten kezkarik edo galderarik gaiari buruz? (jatorria, guraso biologikoak, abandonoaren auzia...) Erantzunik jasotzen zenuten?
- Zer nolako trataera eman zaio gaiari zeuen nerabezaroan? (familia, ingurune hurbila...)
- Familia eta norbere buruarekiko sentimenduak?
- Erreferenteak

Adopzioa Euskal Herrian

- Zer nolako trataera eman zaio gaiari zure ingurunean? Zer nolako jarrerak jaso izan dituzue? (galderak, jokaera arrazistak, jarrera positiboak...)
- Zer nolako jakintza dago Euskal Herrian adopzioari buruz? Eta zuen jatorrizko herrialdeari buruz?
- Nola deskribatuko zenukete euskal gizartea? (arrazista, progresista, itxia edo baztertzailea, irekia...)
- Euskal sujetua
 - Nolakoa da?
 - Irizpideak, baldintzak... zer esango zenukete behar dela euskaldun izateko?
- Euskaldunak sentitzen zarete? Zer garrantzia emango zenukete euskaldun sentitzeari? Taldekidetzat onartua izateari?
- Euskal Herriko testuinguru sozio-politiko berezia (nazionalismoari, euskarari buruzko diskurtsoak, ezkerretik antiarrazismoari buruzko aktibismoa...) gizartean integratuak sentitzeko lagungarria izan al da? Ala oztopo?

Gaur egungo identitatea: gaztaroari eta adopzioari buruzko gogoetak

- Zein da adopzioaren lekua, pisua... zeuen bizitzan gaur egun? Beharrik sentitzen al duzue zeuen buruaren deskribapenean integratzeko?
- Zeuen integrazioa lortzeko ahalegin berezirik sumatu al duzue zeuen bizitzan zehar? (familiar, lagunartean, hezkuntza sisteman...)
- Zer pentsatzen duzu gaiari buruz gaur egun? Zer dakizu? Eta zeren falta edo beharra sumatzen duzu?

Hizketa amaitzeko prozedura:

- Laburpena egin.
- Kontrastatu partaideekin.
- Aipatutako gaien inguruan zeozer erantsi nahiko zenukete?

Besterik egon ezean, eskerrak ematen dizkizuegu ikerketan parte hartzeagatik. Azkenik, elkarriketatik ateratako emaitzak edo datuak jakin nahi izanez gero, ikertzaile nagusiarekin kontaktuan jartzeko eskubidea duzu. Honekin bukatzen dugu elkarriketa, eskerrik asko berriro ere eta laster arte.

Adituarentzako elkarrizketa-gidoia



GrAL ikerketa proiektua. 2022-2023.

Proyecto de investigación TFG. 2022-2023.

Egilea: Paula Jie García Cardeñoso

Zuzendaria: Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea

Saila: Gizarte Psikologia

Aurkezpena:

¡Buenos días/buenas tardes!

Me llamo Paula Jie García, estudiante de cuarto curso del grado de Ciencia Política y Gestión Pública en la UPV/EHU. Estoy llevando a cabo una investigación sobre la identidad para mi Trabajo de Fin de Grado (TFG), enfocado desde la psicología social en particular. Precisamente, al ser adoptada y de origen chino, me ha resultado especialmente interesante investigar cómo se materializa esa identidad en la sociedad vasca. Por lo tanto, he querido centrar la investigación en las niñas llegadas desde China mediante la vía de la adopción al País Vasco entre 2000 y 2005. Para estudiar el desarrollo de la identidad propia de cada quién, he decidido organizar una entrevista grupal; entendiendo la identidad como narrativa, el objetivo trata de sacar a la luz los elementos utilizados desde la infancia hasta nuestra juventud para construirla. Así, se quieren identificar los elementos compartidos y las principales diferencias. Para ello, además del rol de investigadora, me situaré también entre las entrevistadas, para poder crear un espacio seguro en el que conversar y poder compartir nuestras experiencias vitales, así como reflexionar sobre la influencia que haya podido tener la adopción para quienes hemos crecido en el contexto socio-político único del País Vasco.

La duración de esta entrevista es de aproximadamente una hora y su participación es voluntaria, por lo que tiene derecho a revocar la autorización concedida en cualquier momento. Su anonimato estará garantizado. Para acceder a la información recopilada y llevar a cabo la investigación le informo que será una entrevista grabada. Podrá tener acceso a los resultados de la investigación en caso de así quererlo.

Dicho esto, vamos a comenzar con la entrevista.

Introducción:

Presentación

- Para empezar, ¿cómo te llamas y cómo te gustaría que me dirigiese hacia ti?
- ¿A qué te dedicas?
- ¿Cuál suele ser el perfil de los adoptados desde china? (género, edad, tipo de familia...) ¿Hay diferencias con otros orígenes?

Infancia

Primeras identidades

- Primeros recuerdos en la ikastola: ¿por qué?
- Diferentes descripciones. ¿Qué patrones se repiten?
- Generalmente no se observan momentos de revelación, y no se tiene presente en el día a día. ¿Qué experiencias hay en general? ¿Cómo se vive en la infancia?

Adopción: proceso y tratamiento

- Conocen el proceso y en muchos han tenido ayuda de asociaciones. ¿Se observan diferencias respecto a otros orígenes?
- ¿Qué tratamiento se suele observar?
 - Normaltasuna
 - Isiltasuna
 - Jatorriaren ideia eta jatorrizko kulturarekin harremantzea
- ¿Qué importancia tienen los recursos como los cuentos, la documentación...?
- ¿Cuáles son las dudas más comunes? ¿Qué importancia tiene recibir respuestas sobre las dudas?

Adolescencia

Revisiting identity in adolescence

- Es una época más conflictiva respecto a la identidad. ¿Qué importancia se le suele dar? ¿Qué conflictos genera?
- ¿Se le da la misma importancia o cambia según el origen?

Adopción: tratamiento

- Se les suele dar respuesta a las dudas. Las familias en las que se ha hablado activamente en la infancia responden más. En las familias con hijos biológicos se percibe menos facilidad para hablar por parte del adoptado (síndrome del impostor). ¿Qué se suele dar?
- Integración diferente en la familia (“no te quieren”...). Ayuda el tener referentes.
- ¿Qué sentimientos suele haber hacia la familia y sobre uno mismo?

La adopción en el País Vasco

- ¿Cómo se suele tratar el tema? ¿Qué comportamientos se perciben? (galderak, jokaera arrazistak, jarrera positiboak...)
- ¿Qué conocimiento hay? ¿Y sobre los países de origen? ¿Ayuda conocer el contexto? ¿Qué diferencias genera?
- ¿Cómo se suele describir el País Vasco? (arrazista, progresista, itxia edo bazterzailea, irekia...)
- Sujeto vasco
 - ¿Cómo es?
 - Irizpideak, baldintzak... zer esango zenukete behar dela euskaldun izateko?
- Se sienten euskaldunes y le dan importancia. ¿Cómo se explica esto? ¿Qué se observa?
- ¿Ayuda el contexto socio-político a sentirse integrado? (nazionalismoari, euskarari buruzko diskurtsoak, ezkerretik antiarrazismoari buruzko aktibismoa...)

La adopción hoy en día: reflexiones sobre la juventud y la adopción

- Se observa una mejor integración, más trabajada y consciente. ¿Se repite?
- Se observa una falta de educación respecto al tema. ¿Qué opinión hay desde el ámbito profesional? ¿Qué conocimientos hay? ¿Qué hace falta?

Hizketa amaitzeko prozedura:

- Laburpena egin.
- Kontrastatu partaideekin.
- Aipatutako gaien inguruan zeozer erantsi nahiko zenukete?

Besterik egon ezean, eskerrak ematen dizkizuegu ikerketan parte hartzeagatik. Azkenik, elkarrizketatik ateratako emaitzak edo datuak jakin nahi izanez gero, ikertzaile nagusiarekin kontaktuan jartzeko eskubidea duzu. Honekin bukatzen dugu elkarrizketa, eskerrik asko berriro ere eta laster arte.

Elkarrizketatuen fitxa teknikoak

| | | | | | |
|---------------------------------|------------------------------|------------------------------|---|-------------------------------------|-----------------|
| Kodea | A1 | | | | |
| Izena | <i>Marina</i> | Generoa | Emakumea | Adina | 21, 22 betezeko |
| Ikasketa gradu maila | Unibertsitateko irakaskuntza | Familia | Ama, aita eta ahizpa txikia (adoptatua) | | |
| Adoptatua izan zen adina | 11 hilabete | Jatorrizko herrialdea | Txina | Bizilekua | Donostia |
| Data | 2023/04/23 | Elkarrizketa iraupena | 2 ordu, 35 minutu eta 04 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |

| | | | | | |
|---------------------------------|------------------------------|------------------------------|----------------------------------|-------------------------------------|-----------------|
| Kodea | A2 | | | | |
| Izena | <i>Leire</i> | Generoa | Emakumea | Adina | 21, 22 betezeko |
| Ikasketa gradu maila | Unibertsitateko irakaskuntza | Familia | Bi ama, bananduak | | |
| Adoptatua izan zen adina | 14 hilabete | Jatorrizko herrialdea | Txina | Bizilekua | Donostia |
| Data | 2023/04/23 | Elkarrizketa iraupena | 2 ordu, 35 minutu eta 04 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |

| | | | | | |
|--------------|--------------|----------------|----------|--------------|-----------------|
| Kodea | A3 | | | | |
| Izena | <i>Enara</i> | Generoa | Emakumea | Adina | 21, 22 betezeko |

| | | | | | |
|---------------------------------|-------------------|------------------------------|----------------------------------|-------------------------------------|------------------|
| Ikasketa gradu maila | Arte irakaskuntza | Familia | Ama eta amona | | |
| Adoptatua izan zen adina | 10 hilabete | Jatorrizko herrialdea | Txina | Bizilekua | San Juan; Bilbao |
| Data | 2023/04/23 | Elkarrizketa iraupena | 2 ordu, 35 minutu eta 04 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |

| | | | | | |
|---------------------------------|------------------------------|------------------------------|--|-------------------------------------|-------------------|
| Kodea | A4 | | | | |
| Izena | <i>Maitane</i> | Generoa | Emakumea | Adina | 21, 22 betezeko |
| Ikasketa gradu maila | Unibertsitateko irakaskuntza | Familia | Ama, aita eta ahizpa nagusia (adoptatua) | | |
| Adoptatua izan zen adina | 13 hilabete | Jatorrizko herrialdea | Txina | Bizilekua | Beasain; Donostia |
| Data | 2023/04/23 | Elkarrizketa iraupena | 2 ordu, 35 minutu eta 04 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |

| | | | | | |
|---------------------------------|------------------------------|------------------------------|--|-------------------------------------|-------------|
| Kodea | A5 | | | | |
| Izena | <i>Naroa</i> | Generoa | Emakumea | Adina | 22 |
| Ikasketa gradu maila | Unibertsitateko irakaskuntza | Familia | Ama, aita eta ahizpa nagusia (adoptatua) | | |
| Adoptatua izan zen adina | 13/14 hilabete | Jatorrizko herrialdea | Txina | Bizilekua | Getxo |
| Data | 2023/04/30 | Elkarrizketa iraupena | Ordu 1, 28 minutu eta 31 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |

| | | | | | |
|---------------------------------|------------------------------|------------------------------|---|-------------------------------------|---------------|
| Kodea | A6 | | | | |
| Izena | <i>Adel</i> | Generoa | Gizona | Adina | 22 |
| Ikasketa gradu maila | Unibertsitateko irakaskuntza | Familia | Ama, aita ahizpa (adoptatua), eta bi anai bixkiak, gazteagoak (ez-adoptatuak) | | |
| Adoptatua izan zen adina | Bi urte eta erdi | Jatorrizko herrialdea | Errusia | Bizilekua | Lemoa; Bilbao |
| Data | 2023/04/30 | Elkarrizketa iraupena | Ordu 1, 28 minutu eta 31 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |

| | | | | | |
|-----------------------------|--|------------------------------|----------------------------------|-------------------------------------|-------------|
| Kodea | P1 | | | | |
| Izena | <i>José</i> | Generoa | Gizona | Adina | - |
| Ikasketa gradu maila | Adopzioetan eta haur eta gazteen babesean espezializatutako familia-psikologoa eta -terapeuta. | | | | |
| Data | 2023/07/10 | Elkarrizketa iraupena | Ordu 1, 17 minutu eta 47 segundu | Grabazioa (dispositibo mota) | Grabagailua |